

# ZUMAIAN HAURREN ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO SISTEMAN ESKU HARTZEKO PLANTEAMENDUA

**ZUMAIAKO UDALA**  
Euskara eta Hezkuntza Saila

**2009ko Uztaila**

## **BULEGO TEKNIKOA**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO HAUR, NERABE ETA  
GAZTEEN SUSTAPENERAKO ATALA**



**Zumaiako Udala**

Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Política Social  
Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia  
Dirección General de Infancia y Juventud



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa





## **ZUMAIAN HAUREN ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO SISTEMAN ESKU HARTZEKO PLANTEAMENDUA**

### **0. SARRERA**

- 0.1. Aurrekariak
- 0.2. Metodologia

### **1. HERRIAREN DESKRIBAPENA ETA KOKAPENA**

- 1.1. Herriaren kokapena eta ingurua
- 1.2. Datu soziodemografikoak
- 1.3 Herriko zerbitzu eta ekipamenduak

### **2. ZUMAIAKO HAUR, NERABE ETA GAZTE POPULAZIOAREN EGOERA**

- 2.1. Haur, nerabe eta gazteengan eragiten duten joera ekonomiko, kultural eta sozialak.
- 2.2. Haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak
- 2.3. Zumaiako haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak
  - Joerak: datuak eta egoera
  - Beharrak: hautemandakoak
- 2.4. Zumaiako Elkartegintza

### **3. ZUMAIAKO GAZTERIA POLITIKAK: OINARRIAK, GARAPENA ETA EGUNGO EGOERA**

- 3.1. Udal egitura eta Sustapen Zerbitzua
  - 2.1.1. Sustapen Zerbitzua
- 3.2. Zumaiako Gazteria Politiken bilakaera eta egungo egoera
  - 3.2.1. Gazteria kontzeptu eta politiken garapen historikoa
  - 3.2.2. Zumaiako Gazteria Politiken bilakaera eta egungo egoera
    - 3.2.2.1. Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapen Sistema
    - 3.2.2.2. Zumaiako Gazteria Politiken bilakaera eta egungo egoera

### **4. LAN PROPOSAMENA**

- 4.1. Ikuspegia
- 4.2. Xedea
- 4.3. Helburu orokorrak eta zehatzak
- 4.4. 2009/10 kudeaketa plana



## ZUMAIAN HAURREN ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO SISTEMAN ESKU HARTZEKO PLANTEAMENDUA

### 0. SARRERA

#### 0.1. Aurrekariak

Zumaiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean GFA) arteko elkarlana Sustapen Sistemaren arloan aurtu hasi da. Zumaiako Udalak ludotekako langileak, udal langile izateko erabakia hartu zuen eta oinarriak idazteko GFA-ri laguntza eskatu zion otsailean. Ludotekari eman nahi zaion bultzada oinarri harturik, elkarlanean, egungo Sustapen Sistema aztertu, indartu eta garatzeko aukera proposa izan zitekeela ikusi zen. Udalak Zumaiako herrian gazteri politikak garatu ahal izateko laguntza eskaera egin zion GFA-ri. Aurrez, 2009ko otsailaren erdialdean bilera bat burutu zen, non, GFA-ren Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Atalburuak azaldu zuen zer zen aholkularitza zerbitzua, erakunde bien artean epe ertain-luzera begirako elkarlana abian jartzeko aukerarekin batera. Zumaiako Udalak eskaintza hau baloratu, eta beharrezko tramiteak egin ondoren abian jarri zen elkarlana, Udalaren eta GFA eta Bulego Teknikoaren ordezkarien arteko lehen bilera batez 2009ko martxoaren 26an.

#### 0.2. Metodologia

Aurre-diagnostikoa egin ahal izateko, lehen mailako iturrietatik jaso dugu informazioa, eta sarean aurkitutako hainbat dokumentu eta informazio ere bildu dugu. Udaleko erreferentea Euskara eta Hezkuntzako teknikaria da, bere arduraren pean baitago udal ludoteka zerbitzua. Honela, Euskara eta Hezkuntza teknikariak, Bulego Teknikoko ordezkariarekin batera, informazioa jasotzeko interesgarri izan daitezkeen informatzaile potentzialak zehaztu ditu. Informatzaileekiko lehen hartu-emanak teknikariak berak finkatu ditu, eta datak zehazteko eta elkarrizketak egiteko arduraduna Bulego Teknikoan ari den pertsona izan da. Landa-lanak hilabete eta erdi iraun du (2009ko maiatzaren 20tik, 2009ko ekainaren amaieraraino).

Aurre-diagnostikoa burutzeko erabili den metodologia batik bat kualitatiboa izan da. Guztira 14 elkarrizketa burutu dira, denak presentzialak, bat izan ezik. Elkarrizketatuak honakoak izan dira:

- Euskara eta Hezkuntza teknikaria
- Kultura teknikaria
- Gizarte langilea
- Euskara eta Hezkuntza zinegotzia
- Kultura, Turismo eta Merkataritza zinegotzia
- Ludotekako koordinatzaile-hezitzailea
- Gazteguneko koordinatzaile-hezitzailea
- Maria eta Jose eskolako zuzendaria
- Oikia Herri Eskolako zuzendaria
- Oikia Herri Eskolako guraso elkarteko bi kide
- IES Zumaiako zuzendaria eta orientatzailea
- Zumaiako Herri Eskolako zuzendaria eta L.H.ko koordinatzailea
- Herri eskolako guraso elkarteko ordezkaria
- Maria eta Jose eskolako guraso elkarteko ordezkaria (ez presentziala).



Hainbat iturri dokumentaletara ere jo dugu informazio bila, eta web orriak kontsultatu ditugu (udal web orria, Eustat, Urola Kosta Mankomunitatearena...). Zumaiako herriaren inguruan egindako ikerketez ere baliatu gara datuak biltzeko, hala nola, "Emakume eta Gizonen Berdintasun Diagnostika" 2009an argitaratu dena, Zumaiako datu soziolinguistikoak, eta 2008ko Aurrekontu Parte-Hartzaileetatik jasotako eskaerak. Gazteria arloan, egungo Udal zerbitzuen proiektuak jasotzen ere saiatu gara (gaztegunea eta ludoteka) baina ez da arrakastatsua suertatu saiakera. Amaitzeko Zumaiako institutuak martxan duen Proa proiektua ere eskuragarri izan dugu aurre-diagnostikoa gauzatzeko, baita Herri Eskolako Guraso Elkarteak eskolaz kanpoko ekintzen inguruan eginiko bilketa ere.

## **1. HERRIAREN DESKRIBAPENA ETA KOKAPENA**


### **1.1. Herriaren kokapena eta ingurua**

Gipuzkoako kostaldeko udalerrria da Zumaia, Urolaren bokalean kokaturik dago eta Urola-Kostaldekoko eskualdearen barne dago. Iparraldean Bizkaiko golkoa eta Getaria, Ekialdean Getaria, Hegoaldean Aizarnazabal eta Zestoa eta Mendebaldean Zestoa eta Deba ditu mugakide. Hiru hondartza ditu: Itzurun, Santiago, Urola ibaiaren bokalean, eta Algorri, Itzurunen ondoan. Azken honetan dago Europako flysch ikusgarrienetako bat. Zumaiako lurretatik oso gertu, metro gutxi batzuetara, Zarautzko eta Aiako lurra daude.

Jatorriz Narrondo eta Urola ibaiak bat egiten duten lekuaren inguruan sortua da herria eta honek herrigunea bi alde nagusietan banatzen du. Gainera, Zumaiak bi alde behintzat nahikoa ezberdin erakusten ditu. Horrela, Urolaren bokalearen ezkerrean alde zaharra eta herria beraren zatirik handiena kokatua dagoen bitartean, eskuin aldean inguru naturalak betetzen du ia osorik, Santiago hondartza eta itsas padurak hain zuzen. Giza eta natur elementu edo bi alde hauek Zumaiaren izaera egituratzen dute.

Herriguneari dagokionez, eliza inguruko etxe eta eraikinek, hiribildua osatzen dute bere harresi eta guzti. Inguruan San Jose edo Arroakalea, Eizagirre edo Arridokiera, Zubiaurre, Ardantza, Santiago, Jadarre, Estazioa, Larretxo, Parolalde, Aita Mari, Alai, Basadi... auzoak kokatzen dira. Herrigunea kontuan izan gabe, Zumaiak egun hiru auzo nagusi dauzka: Artadi, Narrondo eta Oikia. Azken hau tamainaz, eta bertan bizi den biztanle-kopuruagatik Zumaiako auzo nagusi edo handiena da. Zumaiatik Oikiarako distantzia handia da, horregatik oikiarrak auzo baina gehiago herri sentitzen dira, berezko nortasunarekin.

Zumaia, 10 metroko garaieran dago eta itsas giroa, nekazari giroa eta industrial guneak topa daitezke 11km<sup>2</sup>-ko bere azaleran. Zumaiatik hiriburuetara dagoen distantzia honakoa da: Donostia 37km-tara, Bilbo 74 km, Gasteiz 75km.



Garraio bide eta komunikazio bideei dagokionez, Zumaia bi komunikazio ardatz garrantzitsuen lotunea da: Donostia-Bilbo ardatzarena eta Zumaia-Zumarraga ardatzarena. Urolako tren egun ez badago ere (egitasmo gisa dago Lurraldearen Zatikako Planaren barruan) Zumarragara joateko autobusak egiten du trenaren ordezkotza bidea. Hendaia eta Bilbo lotzen dituen topo-trena ere Zumaia-ik igarotzen da (EuskoTrenek bi errai egiteko asmoa du zerbitzuaren maiztasuna hobetzeko). Horrez gain, autopistaz ibiltzen diren autobusak ere badira, Donostiarekin edo eta bidean dauden herriekin komunikatzen duena. Autobusa eta tren kontuan izanda, Bilbo aldera joateko maiztasuna urriagoa denez, zailtasunak gehiago nabari dira. Zumaia-Itzierreko joan etorria egiten duen autobusa ere bada, nahiz eta maiztasun baxukoa izan. Kotxez, bi bide nagusi ditu, N-634 errepidea eta Bilbo-Behobia A8 autopista. Zumarraga-Zumaia ardatzean ere Urola haranean barrena doan errepidea dago.

Aldiz, Zumaia arazoak ditu Gipuzkoako zenbait bazterretara joateko (adibidez, Arrasateko unibertsitatera joan behar dutenek pairatzen dutena). Baina zailtasun handienak herri barruan mugitzeko sortzen dira. Zenbait auzo herrigunetik urrun geratzen dira eta kotxea beharrezkoa da herrigunera iristeko, epe laburrean garraio publikoa jartzekoa asmoa dago. Narrondo eta Oikiako auzoetarako garraioa jartzeko eskaera jaso dugu edo ordezkotza aukera gisa, bidegorria jartzea proposatzen dute gurasoek. Udalak martxan jarri duen bizikleta alokairuaren zerbitzuaren osagarri ezin hobe litzateke, auzo hauetara joateko bidegorria izatea.

## 1.2. Datu soziodemografikoak

Zumaia egun 9.289 biztanle ditu. Biztanle hauetatik 3.058 dira haur, nerabe eta gazteak, hau da, biztanleri osoarekiko % 32,92. Gipuzkoako datuekin alderatuz, haur, nerabe eta gazteen portzentajea biztanleriarekiko %29koa da, eta beraz, esan daiteke Zumaia herri gaztea dela, Gipuzkoarekin alderatuz. Adin tarteka banatuta hauen dira Zumaia haur, nerabe eta gazteen datuak:

Adin tartea	Neskek	Mutilak	Denera
0-5 urte	309	343	652
6-12 urte	327	340	667
13-17 urte	215	225	440
18-29 urte	653	646	1299
<b>Denera</b>	<b>1504</b>	<b>1554</b>	<b>3058</b>

\*Iturria: Zumaia Udalak. 2009-01-01.



Taula honetan ikusi daitekeen bezala mutil eta nesken kopuruak, adin tarte guztiak kontuan izan da, ohiko joerari jarraitzen dio, mutilen kopurua pixka bat gailentzen delarik, 18-29 urtekoen artean ezik.

Populazioaren datu orokorretara bueltatuz, aipatzekoa da biztanlerian gorakada bat eman dela. Izan ere, 1991. urtean, 8.162 biztanle zituen Zumaiak erroldan eta egun 1.000 biztanle gehiago ditu. Honen arrazoietakoa bat, ondoko herrietatik eta atzerriko etorririko pertsonen kopuruan emandako igoera izan da. 2006 urtean, herrian 8.870 biztanle zeuden, beraz %4,7 igo da populazioa urte hauetan zehar. (*Iturria: Eustat*)

Urola Kostako Udal Elkarteak 2007an argitaraturako “Enplegu Txostenean” biztanleriaren hazkundera azaltzeko honako arrazoi hauek zerrendatzen ditu:

- Eskualdez kanpoko pertsona gehiago etorri dira.
- Etorkinak ugaritu dira.
- Jaiotze tasa altuagoa izan da hilkortasuna baino.
- Lan eskaintza handitu egin da.
- Erretirorako leku aproposa izan daiteke.
- Azpiegitura egokiak ditu (garraioa batik bat)

Igoera honetan, generoari erreparatzen badiogu, emakumeen biztanleriaren igoera gizonetzkoenari nagusitzen zaio. (*Iturria: Berdintasun Diagnostika 2009*)

## Lana

Herrian kokatuak dauden ekonomi jarduera nagusiak industria (mekanikoa, arrain-kontserbak, altzarigintza, untzigintza, oilasko-hazkuntza) eta turismoa dira. Lanean ari diren herritarren % 60 inguru dabilta bigarren sektorean eta, gainerakoak, hirugarrenean gehienak; lehen sektoretik % 3k edo ateratzen dute bizimodua (*krisia hasi aurretik jasotako datuak*). Urola-Kosta izatez, ez da herri industrializatua, baina Zumaia eskualdeko herri industrializatuena da, horregatik du horrelako okupazio altua industriak.

Langabezia tasari dagokionez, hurrengo taulan hainbat datu aurkezten dira:

	LANGILE AKTIBOAK		EZ AKTIBOAK	GUZTIRA
	Langile okupatuak	Langabeak		
<b>GIPUZKOA</b>	291.606	31.468	350.489	673.563
<b>UROLA-KOSTALDEA</b>	28.952	2.718	34.758	66.428
<b>ZUMAIIA</b>	3.832	357	4.338	8.527


*\*Datuak Eustat-etik jasoak (2001eko errolda)*

Taula honetako datuak ez badira guztiz berriak ere, Zumaia, Gipuzkoako errealitatearekin alderatzeko balio digu. Zumaiak 2001ean, Gipuzkoako langabe portzentaje antzekoa bazuen ere, okupatuak zeuden langileak eskualde eta lurraldeko datuak baina puntu bat gorago kokatzen ziren.



*\*Datuak Urola Kostako Udal Elkartea (2009ko ekaina)*

Egun, krisiaren ondorioz, 2001an baino 100 pertsona gehiago daude langabezian. Goiko grafikoan ikusten den bezala, Zumaia 450 langabetuen artean ez da sexuen arteko ezberdintasunik atzematen. Ikus dezagun adin tarte bakoitzean nolako joerak dauden:



*\*Datuak Lanbide.net-etik jasoak (2009ko ekaina)*

Azken grafiko honetan, generoaren eta adinaren arabera kalkulaturako langabezia tasa agertzen da. Zumaia 450 langabetuen artean ez da sexuen arteko ezberdintasunik atzematen. Orokorrean, emakumezkoetan ematen den langabezia kopurua gizonetan ematen dena baino altuago da. Alderantzizko joera dago, 25 urte eta 34 urte bitarteko adin tartean



eta nabarmenki 25 urtetik beherako taldean. Bi talde hauetan gizonezko langabeen kopurua altuagoa da, batik bat 25 urtetik beherakoena. Gipuzkoan ere antzeko fenomenoak gertatzen da.

### Biztanleriaren jatorria

Ondorengo taulan, Zumaian 2008ko abenduan erroldaturiko atzerritarren sailkapena azaltzen da beraien jatorriaren arabera:

		Europar Batasunekoak		Europar Batasunetik Kanpo		
		E	G	E	G	
Zumaia	Alemania	4	4	Aljeria	5	6
	Armenia	6	3	Argentina	8	2
	Britainia Handia	2	4	Australia	1	0
	Bulgaria	3	4	Bolivia	2	0
	Errumania	11	21	Brasil	19	6
	Errusia	3	0	Kanada	1	0
	Frantzia	6	2	Kolonbia	12	10
	Holanda	0	1	Kuba	15	4
	Hungaria	0	1	Chile	11	12
	Irlanda	1	2	Txina	4	3
	Italia	1	5	Dominikar Errepublika	5	3
	Polonia	1	0	Ekuador	4	5
	Portugal	2	14	Ginea	1	0
	Suedia	0	1	Ginea Ekuatoriala	9	5
	Suitza	0	1	Honduras	1	0
	Ukrainia	4	4	India	1	0
	Besteak	3	1	Maroko	23	18
				Mauritania	0	4
				Mexiko	0	3
				Nikaragua	15	4
				Pakistan	0	1
				Peru	4	0
				Senegal	2	4
				Uruguay	2	1
				Venezuela	3	1
	Guztira	47	68		148	92
					355	

\*Iturria: Emakume eta Gizonen Berdintasun Diagnostiko-tik jaso

Biztanleriaren jatorriari dagokionez, 355 atzerritar zeuden 2008 bukaeran, populazio osoren % 3,9a. Europar Batasunetik kanpokoek portzentajea altuagoa da (%2,6) Europar Batasuneko populazioarekin alderatuta (%1,7). Generoari dagokionez, emakumezko atzerritarrek gehiago dira (195 biztanle) gizonezkoak baino (160 biztanle).






Eustatek eskaintzen dituen datuak kontuan hartuta esan dezakegu, Zumaian, Gipuzkoaren antzera, immigrazioaren fenomenoaren gorantz doala. 1989an 21 atzerritar biztanle errolatu baziren, egun 355 errolatuak daudela baitakigu.

### Euskararen ezagutza

Zumaia herri euskalduna da, bere ingurunearen antzera. Zumaiaiko datu soziolinguistikoek, euskaraz badakitenak eta nahiko ondo ulertzen dutenak kontuan hartuta, bost lagunetik lau euskal hiztunak direla adierazten digute. Zumaiaiko haur, nerabe eta gazteetatik ia denek euskara badakite edo ondo ulertzen dute.

Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera. Zumaia, 2001 (%)




\*Iturria: Euskararen Datu Basea 2.0 in Zumaiaiko Datu Soziolinguistikoak 2009

Halere aipagarria suertatzen da hizkuntza-gaitasunari dagokionez, azken urteetan haurren datua beranzkoa joera izatea. Kanpotik etorritako neska mutilen ondorio izan daitekeela aipatzen da txostenean. Aldiz, gazteen bilakaera positiboa da, eskualdean D ereduak izan duen zabalkuntzari atxikitzen zaiolarik.



Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Udalerria 1986&gt;&gt;2001 (%)



\*Iturria: Euskararen Datu Basea 2.0 in Zumaiako Datu Soziolinguistikoak 2009

Etxean erabiltzen den hizkuntzei dagokionez euskara bakarrik erabiltzen dutenen kopurua altua da. Gainerakoek gaztelania edo bi hizkuntzak nahasiak erabiltzen dituzte. Halere, beranzko joera agertzen da Zumaiako etxeetako euskara erabileran.

Kaleko erabileran aldiz, goranzko joera nabarmena da, bospasei urteko epealdian ia bi puntu igo baita. Kaleetan behatu diren bost elkarrizketetatik hiru euskaraz izan dira. Haurren %80,2ak euskaraz hitz egiten du kalean eta gazteen %64,9a da horrela mintzo dena. Auzoen arabera erabilerari erreparatuz, gazteak egoten diren Basadi-Aita Mari inguruan, erabilera bost eta hamar puntu bitartean igo izana aipatu behar da.

### 1.3 Herriko zerbitzu eta ekipamenduak

Atal honetan ez ditugu herriko zerbitzu eta ekipamendu guztiak jasotzen, Zumaiako haurrek, nerabeek eta gazteek erabiltzen dituzten zerbitzu eta ekipamenduak dira bertan agertzen direnak.

HEZKUNTZA ZENTROAK	1	Eskola Txiki Haurreskola	Hurtzaindegia
	2	Arrangoleta Zumaiako Haurreskola	Hurtzaindegia
	3	Maria eta Jose Ikastetxea	Hurtzaindegia/H.H./H.L./D.B.H.
	4	Oikiako Herri Eskola	H.H./L.H.
	5	Herri Eskola	H.H./L.H.
	6	Zumaiako Institutua	D.B.H./Batxilergoa/Lanbide Heziketa
	7	Lanbide Hastapeneko Zentroa	Soldadura



Zumaian zentroan kokaturik daude Herri Eskola eta Maria eta Jose ikastetxea, bi zentroyen artean Narrondo ibaia pasatzen da, eskolen gunea herriko bi alderdi banatueta kokatuz. Herri Eskola bi eraikuntzetan banatua dago, eta hauetako bat Zumaiako institutuarekin konpartitzen du. Aipagarria da Zumaiako Institutuak, Lanbide Heziketako zikloa eskaintzen duela, Goi Mailako Administrazioa eta Gestioa. Lanbide Hastapenerako zentroak ere eskaintza bakarra du; soldadura langilea. Oikiako Herri Eskola, izen bereko auzoan kokatua dago eta 28 haur daude bertan matrikulatuak.

<b>ZERBITZU ETA EKIPAMENDU PUBLIKOAK</b>	1	Foronda Kultur Etxea
	2	Musika Eskola
	3	Aita Mari Zinema
	4	Auzoetako Frontoiak
	5	Skate pista
	6	Lubaki kiroldegia
	7	Itsas Kiroldegia
	8	Aita Mari futbol zelaia

Foronda Kultur Etxea izen bereko eraikinean kokatua dago eta bertan haurrentzako liburutegia, helduen liburutegia, ikastaroetarako gelak, bilera gelak eta KZ zerbitzua daude kokaturik. Zumaiako eskaintza kulturala erreferentea da Urola Kostan eta hileroko bere eskaintzan, haur edota nerabeei zuzenduriko eskaintza berezia izan ohi du. Alondiga edo Oxford eraikina ere erabili ohi da kultur erakusketak egiteko, baina momentu honetan egokitze lanak egitekotan dira eraikin horretan.

Musika Eskolak, Zumaiako haur, nerabe eta gazteei musika ikasi eta zaletasun hau garatzeko aukera eskaintzen die. Patronatuaren kudeaketa pean dago, musika eta instrumentuak ikasteaz gain, talde instrumentalak, euskal dantzak eta haurrentzako abesbatzan ere parte-hartzen dute haur eta nerabeek.

Aita Mari Zinemak, film komertzialak eskaintzen dituen areto honek, udaletik programatzen diren beste film eta ikuskizunak eskaintzeko aukera ematen du. Foronda Kultur Etxetik zuzendutako, haur eta nerabeentzako zinema bertan eskaintzen da.

Zumaiak zentro aldean zuen frontoia galdu du, eta berria aurreikusia badago ere, honen eraikitzeak luzera joko duela dirudi. Zumaiako Herri Eskolak duen frontoia erabiltzen da eskola kirola eta bestelako ekintzetarako. Zumaiako beste zenbait auzoetan badaude frontoia, hala nola Artadi San Migel auzoan, Larretxo auzoan (Itzurungo frontoia) edo Oikian. Azken hau auzotarrek eskatuta estali egin zen, baina neguan hurrekin bertan jolasean ibiltzeko deseroso geratu da, oraindik aire korranteak baitaude.

Skate pista gazteek erabiltzen dute. Zumaiako Institutua eta Lubaki kiroldegitik gertu dago.

Lubaki kiroldegiak talde zein bakarkako kirola praktikatzeko aukera eskaintzen die haur, nerabe eta gazteei; bi igerileku, kirol-pista ezberdinak, gimnasioak, muskulazio eta fitneserako aretoak, paddel eta tennis pistak, futbol zelaia, tatamia...

Itsas Kiroldegia, izenak dioen bezala, itsasoarekin erlazioa duten edo bertan praktikatzen diren kiroletarako prestatu eta materiala jasotzeko ekipamendua da.



Aita Mari futbol zelaia, Zumaiako futbol taldeak erabiltzen du. Bertan entrenamendu eta partiduak jokatzen dira.

Haur, Nerabe eta Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduak	1	Udal Ludoteka
	2	Udal Gaztegunea
	3	Musika Entsegu Lokalak
	4	Haurrentzako jolas parkeak

Zumaiako Udal Ludoteka, Itsas Kiroldegian dago kokaturik. Zumaiako 6 eta 12 urteko haurrei eskainia dago, asteartetik ostiralera zabalitzen da, arratsaldeko 17:00etatik 19:30era. Urtxintxa enpresak kudeatzen duen haurrentzako udal zerbitzua da.

Herrian zehar badira zenbait parke, haur jolas tinkoetz hornituak daudenak. Zentroan geratzen den handienetarikoa Amaia Plaza da. Zumaiako eskolek, Udalaren eskaerari erantzunez, eskolako patioak ikasturtean zehar zabalik uzten dituzte arratsaldez (eskola ordutik kanpo), familiek, haurrek, nerabeek eta gazteek erabiltzeko aukera izan dezaten. Horrela Aita Mari-Basadi aldean, haurrentzako jolaslekuez gain, ikasturtean zehar, eskolako patioak zabalik izaten dira. Maria eta Jose ikastetxeko jolaslekua ere zabalik izan ohi da ikasturtean zehar. Oikiako auzoan, eskolaren aurrean geratzen den plazan, haurrentzako kolunpioak dituzte.

Gaztegunea, (aurrez Gaztetxola izandakoa, eta oraindik ere izen hau erabili ohi da bera izendatzeko) Turismo Informazio bulegoaren alboan kokaturik dago, Kantauri plazan. Asteleheneetik ostiralera arratsaldez irekitzen da eta larunbatetan goizeko ordutegia du. Bertako erabiltzaileak 12-18 urte bitarteko nerabeak dira, hartzaileak 12-30 urte bitartekoak badira ere, oraingoz ez da 18tik gorako eskaintza zabaldu. Ostargi enpresak kudeatzen duen nerabe eta gazteentzako udal zerbitzua da.

Musika entsegu Lokalak, Kultura sailetik bideratzen dira. Egun 3 lokal dituzte eta estilo musikalen arabera erabiltzaileak bereizten saiatzen dira. Orotara 20 taldek erabiltzen dituzte musika lokalak. Lokal berriak egiteko proiektua dute esku artean. Grabazioak egiteko, maketarako, diru-laguntza eskaintzen da Kultura Sailetik.

2008ko uztailaren 8an ZUGA gazte taldearen inizatibaz herriko Erkibe Etxea okupatu zen, Gaztetxea bihurtuz. Etxea pribatua, erortzeko arrisku egoeran zegoen eta udaletik bertatik ateratzeko eskatu zitzaizkien gazteei. Halere, urtebetez Gaztetxe izaten jarraitu du, nahiz eta ekintza gehienak 2008ko udaran egin. 2009ko uztailaren 24ean ertzainek bertan zeuden gazteak kanporatu eta ateak itxi dituzte. Momentu honetan Alkatea, gazte talde honekin negoziaketetan dabil Torreberri eraikinean Gaztetxea jar daitezkeen ikusteko. Kultur Sailak, aldiz, Torreberri, Dantza Eskola jartzeko egitasmoa du esku artean. Bi egitasmoak batera aurrera eraman daitezkeen ideia ere ba omen dago. Halere, aipatutako hauek momentuz egitasmo soilak dira.

Guzti honetaz gain ezin ahaztu dezakegu, Zumaia kostan dagoen herria dela eta eguraldi ona egiten duenean, hondartzara joaten direla, familiak, gazteak... Halere horrelako ekintzak egiteko eguraldi aproposa ez dagoenean, haurrekin jolasteko leku babestu baten beharra nabaria da. Zentroan eta Oikian, haur txikiekin jolasteko leku estaliaren eskaera jaso da bai zuzeneko elkarrizketetan, baita 2008an eginiko Aurrekontu Parte-hartzaileetako eskaeretan ere.



Hemen jasoak agertu diren zerbitzu eta ekipamenduez gain, badira herrian beste adin tarte batzuei eskainitako zerbitzu eta ekipamenduak ere. Baina hauek dira gehien bat haur, nerabe eta gazteek erabiltzen dituztenak.

## 2. ZUMAIAKO HAUR, NERABE ETA GAZTE POPULAZIOAREN EGOERA

### 2.1. Haur, nerabe eta gazteengan eragiten duten joera ekonomiko, kultural eta sozialak

Etengabe aldatzen ari den gizarte batean bizi gara eta horrek eragin zuzena du haur, nerabe eta gazteengan. Ondorioz, gaur egungo gazteen eta duela hamabost urteko gazteen ezaugarriak desberdinak dira.

Haur, nerabe eta gazteen premiak ezagutu nahi baditugu, gizartean eman diren aldaketak kontuan hartu behar dira.

Hona hemen egungo gizartea markatzen duten joerak:

#### *Ekonomia joerak:*

- Globalizazioa: hazkuntza ekonomikoa eta garapen pertsonala eta profesionala gehiago hedatzeko aukerak eskaintzen ditu. Baina, bestalde, negatiboagoak diren beste ondorio batzuk ere baditu, esate baterako: estatuak ahultzea, urrakortasuna areagotzea (arriskuaren gizartea), etab.
- Lan ezegonkortasuna: aldi baterako kontratuak, ezkutuko ekonomia areagotzea, lan merkatuan txertatzeko zailtasunak prestakuntzarik gabekoentzat,...
- Gizarte polarizazioa: gizartean txertatutakoen eta baztertutakoen arteko aldeak gero eta nabariagoak dira. Gazteak, emakumeak eta etorkinak dira arrisku egoera larrienean aurkitzen direnak.
- Une honetan, mundu mailako krisialdian gaude, oraindik noraino irits daitekeen oso argi ez egon arren.

#### *Gizarte joerak:*

- Aldaketa demografikoak: bizi itxaropena hazten ari den bitartean jaiotza-tasa, beheranzko joera gainditzen ari bada ere, biztanleak gero eta zaharragoak dira. Bestalde, migrazio-mugimendua gero eta handiagoa da.
- Aldaketak familian: emakumeak lan munduan sartu dira, eta lana eta familia adiskidetzeko oso neurri gutxi jarri dira abian; haurren eskubideak aitortu dira; gazteak gero eta beranduago doaz gurasoen etxetik;...
- Aldaketak familien egituran: guraso bakarreko familiak, izatezko bikoteak, bigarren ezkontzak, bakarrik dauden pertsonak,...

#### *Kultura joerak:*

- Kultur kontsumismoa eta bateratasuna: kultura kontsumo produktu bilakatu da, hainbat lekutan produktu bera kontsumitzen da.
- Kultur artekotasanak zuzeneko eragina du erkidegoaren kulturaren.
- Banakako desberdintasunen eskubidea aitortu egin da eta diskriminazio positiboa onartu egin da.



- Gizarte eragin berriak: gizarte agente tradizionalak nagusitasuna galdu dute (familia, eskola,...) eta sozializazio agente berriak agertu dira (kalea, berdinen taldea, aisialdia, teknologia berriak,...). Azken horiek banakakotasuna eta lehiakortasuna areagotzen dute.
- Aldaketak gizarte partaidetzan: militantzia desagertu da eta noizbehinkako partaidetza sortu da.

## 2.2. Haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak.

Esan den bezala, egungo gizarteak adierazitako joera berriek gizarte aldaketa nabaria sortu dute, eta horrek haur, nerabe eta gazteen egoeran eragin zuzena du.

Hona hemen, gizarte testuinguruan emandako aldaketek haur, nerabe eta gazteen egoeran sortutako zenbait ondorio:

Emantzipatzeko batez besteko adina altua da, alde batetik, langabeziaren eta lan ezegonkortasunaren eraginez, eta bestalde, etxebizitzaren prezioak oso garestiak direlako. Horrek oinarriko eskubideak baztertzen ditu (lanerako eta etxebizitzarako eskubideak), eta ia gazte guztiei eragiten die, izan ere, heldutasunera iristeko bidea eta euren bizitza proiektuaren garapena oztopatzen ditu.

Arrisku faktore berriak azaleratu dira haurren eta nerabeen babesaren aurka: gurasoek seme-alabekin denbora gutxiago ematen dute, sozializazio agente tradizionalak krisian daude, gero eta goizago sartzen dira helduaren kontrolatik at dauden sozializazio gunetan eta harreman gunetan, ... Era horretan, nerabeen eta gazteen osasuna kaltetu eta haien bizitza ibilbidea arriskuan jar dezaketen arrisku portaerak gero eta gehiago ugaltzen dira: kontsumoak areagotzea, trafiko istripuak, haurdunaldiak eta abortuak nerabetasunean, desoreka psikologikoak batez ere nerabetasunean,...

Haurrenganako eta nerabeenganako arreta premiak areagotu dira, familian emandako aldaketek eraginez:

- Gizonek egokitutako rol aldaketetara egokitzeko zailtasunak dituzte..., edota emakumeek jardunaldi bikoitzak dituzte, horrenbestez, familiarentzako ondorio negatiboak sortzen dira.
- Laguntzarako premiak eta aisialdiko jardueren eskaera areagotu dira, astean zehar, Gabonetan, Pazko garaian eta uztailean.
- Aitona-amonak gero eta garrantzitsuagoak dira ordezkoko zaindari eta haurrentzako erreferentzia irudi gisa.

Adingabeko etorkinen kopurua pixkanaka gero eta ugariagoa da. Pertsona eta familia etorkinek kultura talkari aurre egin behar diote. Haien aisialdiko eta laneko ikuspegia, gizon eta emakumeen arteko harremanenena, hazkuntza eta sozializazio jarraibideak,... gureak ez bezalakoak dira eta horiek barne hartzen dituzten gizarteok ere ez gaude beste kulturetako pertsonekin batera bizitzeko prestaturik.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera gero eta garrantzitsuagoa da gazteen artean. Messenger, Facebook, Tuenti, eta sms bezalako tresnak agertzeak berdinen artean erlazionatzeko era berriak sortu ditu, baita lagunak etxean sartzeak ere.

Gazteen partaidetza moduak aldatu dira. Gazteek gero eta gutxiago hartzen dute parte elkartetan, alderdi politikotan edo sindikatutan. Oro har, nahiago dute noizbehinka parte hartzea, formalizatu gabeko moduan. Horrez gain, elkartetan parte hartzen dutenean, horiekiko sortzen duten lotura iraganean baino laburragoa eta ahulagoa da



eta parte hartzeko motibazioak dibertsifikatuagoak daude. Besteekin elkartzea, dibertsioa, garapen pertsonala edo etorkizun profesionalerako gaitasunak bereganatzea bezalako alderdiei lehentasuna ematen diete.

Administrazioak hiritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen oinarriak finkatzeko garaian, funtsezkoa da BEHARRA kontzeptua ulertzea. Beharraz ari garenean ez dugu eza edo gabezia esan nahi, baizik eta, pertsonaren eta inguruaren arteko mendekotasun harremana eta, hein berean, pertsonak inguru hori eraldatzeko dituen ahalmenak. Gizakiaren beharrak aipatzen direnean giza eskubideena da gehien onartzen den erreferentziatzko eskema.

Pertsonak dituzten behar guztiak ez dituzte eskaera bilakatzen, eta batzuetan, ez dituzte sentitu ere egiten. Haur, nerabe eta gazteen kasuan sentitzen ez dituzten behar batzuk badituzte. Beharren eta eskaeren artean desberdintzeak ez du esan nahi haur, nerabe eta gazteek adierazitakoak ez direla erreferentzia-gune nagusia, baizik eta, zerbitzuak diseinatzeko orduan ez garela soilik beraiek adierazitako beharretara (eskaerak) mugatuko.

Gipuzkoako Haur eta Gazteria Sustatzeko Sistemaren ikuspegiaren arabera haurrek, nerabeek eta gazteek behar hauek dituzte:

- Giza duintasuna babestea, errespetatzea eta aitortzea.
- Dibertitzea, gozatzea eta bizitzaz gozatzea.
- Maitasuna eta estimua jasotzea, familia inguruarekin, taldearekin eta erkidegoarekin mantentzen duten harremanen bidez.
- Haien burua pertsona gisa ezagutzea, eta, halaber, ingurua (tokikoa eta orokorra) eta bertan agertzen diren aukerak eta mehatxuak ezagutzea.
- Erabakiak hartzea, arrazoizko arriskuak bere gain hartzea, aukeratzea, hautatzea.
- Gaitasunak, trebetasunak, bizitzarako portaera erabilgarriak bereganatzea eta garatzea.
- Adieraztea eta parte hartzea.
- Norbere bizitzaren protagonista sentitzea, erabilgarri, eraginkor, inguruan eragiteko gai sentitzea.
- Hezkuntza sistema formalean txertatzea eta aurrera egitea, hezkuntzarekiko eskubidea aitortzeko modu nagusi gisa.
- Osasuna babestea eta sustatzea, bere osasunarekiko eskubidea aitortzea bermatuko dion osasun sistema publiko batean sartzeko eskubidearekin.
- Etxebizitza duin bat, egonkor eta seguru bizi ahal izateko etxe bat, bertakoa sentitu eta bere nortasuna garatu ahal izateko.
- Hala dagokionean, lan merkatuan parte hartzea, bere gaitasunekin bat egiten duen lan duin bat lortuz, behar bezala suspergarria eta behar bezala ordainduta.
- Bere autonomia pertsonala eta erkidegoko partaidetza babestea eta sustatzea, gizarte zerbitzuetako sistema publiko batean sartzeko eskubidearekin (sistema nagusia, gainerakoan, adin txikikoen babesean).
- Oro har, pertsonen gizarte ongizatea eta bizi kalitatea bermatzen duten ekonomia, kultura edo bestelako baliabide eta ondasun guztiak eskura izatea.

Horiek guztiak behar orokorrak dira, eta gure ustez, Administrazioa horiei guztiei erantzuteko gai da. Jakina; pertsona bakoitzarengan eta bizitzaren une bakoitzean (hautzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan) modu desberdinean taxutzen eta adierazten diren beharrak dira.



Haurren, nerabeen eta gazteen premiak etengabe ebaluatu behar dira, eta erantzun egokiak planifikatu behar dira. Haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroko etapak dagozkien balio eta zentzuarekin bizi ditzaten, eta heldutasunerako behar bezala prestatu daitezten.

### 2.3. Zumaiako haur, nerabe eta gazteen egoera:

#### Joerak

#### **Haurrak (0-12)**

Aurrez azaldu bezala, Zumaiako hiru zentroek ematen dute haurtzaindegia eskaintza, bi haurreskolak dira eta bestea Maria eta Jose ikastetxea da, non bertan, haurreskolatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaraino ikasi daitekeen.

Hiru eta hamabi urte bitarteko haurrak, Herri Eskola, Maria eta Jose eta Oikiako Herri Eskolan banatzen dira. Oikian kokatua dagoen eskolan, auzoan bertan bizi diren ikasleak joaten dira. Zumaiako beste ikasle guztiak Maria eta Jose eta Herri Eskolaren artean banatzen dira. Horrela ibaiak ezberdintzen dituen bi gunetan banatzen dira erdiguneko haurrak, Axular aldean eta Aita Mari Auzategian. Banaketa honek zenbait adinetan, ikasleen artean identitatea edo taldekotasuna bideratzen du, bien artean lehia sortuz. Hiru eskolek jangela zerbitzua eskaintzen dute. Komunean dute baita, bertako ikasleek 8 urtetik aurrera eskola kirola programetan parte-hartzen dutela. Oikiarren kasuan, herrira jaisten dira kirolean parte-hartzera. Gurasoen esku geratzen da, larunbat goizean izan ohi diren partiduetarako antolamendua eta garraioa. Multi kirola ekintza hauek, astean zehar eta larunbat goizez neska-mutilen okupazio izan ohi dira.

Oikiako Herri Eskolak eta Zumaiko Herri Eskolak, bestetik astean zehar ekintza ezberdinak egiteko aukera ematen diete 6-12 urteko haurrei. Ekintza hauen barruan, pintura tailerra, mekanografia... topa daitezke.

Izaera publikoko eskolaz kanpoko ekintzetan, ludoteka eta kutur eskaintza daude. Ludoteka 6-12 urtekoek zuzendua dago eta bertara joaten dira astean bitan. Egun nabarmena da, bertara joaten diren erabiltzaileak, batik bat Herri Eskolakoak direla. Ludotekatik, Maria eta Joseko ikasleak zerbitzua ez erabiltzearen zergatia aztertzen saiatu da, baina ez du erantzunik topatu.

Kultura sailak, tailer ezberdinak eskaintzen ditu, antzerkia, marrazketa... Gainera haurrentzako zuzenduriko eskaintza antolatzen du hamabostero, zine emanaldi edo antzerkia. Haurrentzako liburutegian ipuin kontaketa ere maiztasun batekin programatzen da eta arrakasta handia izaten du, bai hartzaile diren urtekoen artean, baita 3 urtetik gorakoetan ere. Izan ere, gero eta guraso gehiago dago, hiru urteko seme-alabekin horrelako ikuskizunetara hurbiltzen dena, nahiz eta beraiei zuzendua ez izan.

Lau bat urtetik aurrera, Musika Eskolara ere joaten dira. Bertan, abestu edo musika instrumentu ezberdinak jotzeko aukera dute.

Beraz, haurrak 6 urtera inguratzen direnean, eskolaz kanpoko ekintzak egiten hasten dira astean zehar. Ordura arte, gurasoek eramaten dituzten lekuetan jolastu ohi dute. Gero eta ohikoagoa da guraso koadrilak bere haur txikiekin elkartzeko. Eguraldi





txarra egiten duenean, taberna edo kafetegietan biltzen dira. Eguraldi ona denean, parkean edo hondartzan egoten dira guraso koadrila beraien haurrekin. Guraso hauen artean atzeman den beste joera bat, haurrak ekintza ezberdinetan parte-hartzera bideratu nahi dituztela da. Herri Eskolako gurasoek, eskolaz kanpo dauden eskaintza publiko eta pribatuen inbentario bat gauzatu dute. Alde batetik eskaintzan hutsuneak zein diren aztertu eta hobetzera begira proposamenak egiteko eta beste alde batetik zenbait eskaintzetan ikuspegi pedagogikoa ez dela nahiko lantzen eta eskaintzaren kalitatea norik bermatu behar duen aztertzeko. Inbentarioa egin ondoren, gurasoen iritzia jaso da eta 3 urtetik gorakoentzat multikirola egiteko proposamena izan da eskaera arrakastatsuenak.

Gurasoak eskolako patioetan geratzen dira eskola orduak amaitu ondoren, haurrekin jolasean. Maria eta Josekoak beraien patioetan eta Herri Eskolakoak beraienetan. Amaia plazan ere elkartzen dira haurrak beraien artean jolas dezaten.

Udaran, Euskara eta Kultura sailek antolatzen dituzten udaleku irekietan parte-hartzen dute haurrek. 3 urtetatik 11 urte bitartekoak, joaten dira bertara, nahiz eta azken adineko talde honetako kopurua gero eta baxuagoa izan. Uztaila osoan zehar Euskara sailak antolatzen du eta bigarren hamabostaldian Kultura sailak antolatutako udaleku musikalak ere izan ohi dira.

6 urtetik aurrerako haurrak ere, eskolako patioan ibiltzen dira gurasoen begiradapean edo bakarrik, baina norbaiten zaintzan. Zumai herri lasaia da eta haurrak kaletik ibiltzen dira, oinez edo bizikletan. 8-9 urte dituztenean, etxeko giltza ematen zaie eta itzulera ordua jarrita, beraien kaxa ibiltzen dira, euren lagunekin kalean. Adin honetan, ere eskola kirola eta beste talde kirolak praktikatzen hasten dira. Aurretik aipatutako ikastaroetara ere joaten dira beraz, oso haur okupatuak dira aste-tartean. Asteburuetan aldiz, lagunekin irteten dira, normalean adin bereko gelakidez osatua izaten da lagun taldea eta neska eta mutilak batera ibiltzen dira. Ordura arte, aste bukaeretan gurasoak dituzten planak burutzera behartuak badaude ere, beraien kaxa ibiltzen hasten dira.

Hamaika urtetatik aurrera, astean zehar eta larunbat goizetan eskolaz kanpoko jarduerekin jarraitzen dute, baina hauek ez dira ludotekara joaten. Kalean ibiltzen dira, patioetan eta parkeetan pipak jaten edo egonean. Garai honetan badirudi ez dakitela oso ondo zer egin nahi duten. Udaran hondartzara joaten dira. Ikasturtean zehar liburutegitik bueltaka ibiltzen dira. Egun liburutegiak ez du eskaintzen taldean etxeko lanak egiten egoteko lekurik, baina Kultur Etxe berrirako aurreikusia dagoen eskaintza da hau. Adin hauekin, lagun taldea neska eta mutilen artean banatzen hasten da eta eskolaz kanpoko ekintzetan ezagutzen dituzten beste ikastetxeko zumaiarrak ere taldean txertatzen hasten dira. Beraz, haurtzaroaren amaieran, gerora koadrila izango dena sortzen hasten da, sexuak berezituaz, baina ikastetxeak bateratuaz.

Oikia auzoan, eskola aurreko parkean egoten dira haurrak jolasean. Gurasoak bertan egoten dira haurrak zaintzen, baina adin batetik aurrera haur zaharrenek, gazteenak zaintzeko joera izaten dute. Adin ezberdineko lagun taldea izaten da Oikian, eta taldea mistoa izan ohi da, hau da neska eta mutilak batera ibiltzen dira. Negu partean, frontoian egoten dira, hotzetik babestu nahian, baina ez da guztiz lortzen. Pilotan jolastea gogoko dute. Ohitura dago haurren artean bata bestearen etxera joateko, horrela taldean joaten dira besteen etxera jolastera. Guraso elkarteak egiten duen eskaintzaz gain, Oikiako haurrak Zumaiako erdiguneko ikastaroetara joaten dira. Baina hauek gutxiengoak dira, batzuk eskola kirola egiten dute eta beste batzuk musika... ikasten dute. Hauek jaitsi eta igotzearen ardura gurasoen esku geratzen da, garraio zailtasun honek, Oikiako haurrek eskolaz kanpoko ekintzetan parte-hartzeko aukera



gutxiago izatea darama. Oikiako haurrak ez dira ludotekako erabiltzaile. Aldiz, udarako udalekuko erabiltzaileak dira.

Integrazioari dagokionez, ludotekatik hiru urtez, euskalduntze eta bizikidetzatza bultzatzen zuen programa jarri zen martxan "Alea tita konba". Beharren arabera jartzen da martxan proiektu hau, balorazio baten ostean egoera aztertu eta programa martxan jarri edo ez erabakitzen da. Ludotekatik haur etorkinen integrazioa lantzea da asmoa, atzerriko haurrak modu naturalean herrian integratzeko.

Orohar, Zumaian kirolak presentzia handia du eta zortzi urtetatik aurrera kirola praktikatzeko eskaintza oso zabala da eta haur, nerabe eta gazte askok parte hartzen dute.

Elkarrizketatu gehienak bat etorri dira, haurrak oso okupatuak daudenaren sentsazioa dutela esatean. Nabarmenezkoa da bestetik 3 urteko haurrak eskolaz kanpoko jarduerak egiteko egitasmoa, oso goiztiarra baita proposamena. Aste bukaeran dute haurrek denbora libre gehien, baita gurasoekin egoteko aukera gehien ere. Azkenik, haurtzarotik nerabazarorako bidean daudenak, erreferente faltan daudenaren ondorioa jaso da.

### **Nerabeak (13-17)**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Zumaiako Institutuan eta Maria eta Jose ikastetxean eskaintzen dira. Oikiako Herri Eskolako nerabeak eta Zumaiako Herri Eskolakoak, Zumaiako Institutuan elkartzen dira. Batxilergoa eta Lanbide Heziketa ikasketak burutzeko, Maria eta Joseko ikasle gehienak ere Institutu honetara joaten dira. Besteak aldiz Zarauzko Oteiza Institutuan edo Lizardi intitutoan amaitzen dituzte ikasketak.

Zumaiako Institutuaren Lanbide Heziketa eskaintza oso mugatua da, ziklo bakarra eskaintzen baitu. Ikasketa hauek burutzen dituztenak, neskak izan ohi dira administrazioaren esparruko zikloa baita eskaintzen dena. Beraz, mutilak Zumaiatik kanpo dauden Lanbide Heziketa eskaintzen duten zentroetara joaten dira.

Eskola porrota jasaten dutenek aldiz, Lanbide Hastapeneko Zentrorako bidea hartzeko aukera dute. Bertan soldadore ikasketak burutu daitezke. Ikasketa hauek burutzen dituzten gehiengoak mutilak dira. Neskek, Zumaiatik kanpo dauden aukerak aprobetxatzen dituzte.

Adin tarte honetan eskolaz kanpoko ekintzak pisu handia hartzen dute. Kirol eskaintza oso zabala da eta akademiako ekintzez gain, musika eta dantza ikastaroak presentzia handia dute ikasle batzuen bizitzan. Aldiz beste ikasle batzuk ez dituzte eskolaz kanpoko ekintzarik burutzen eta kalean egoten dira edo alokaturiko lokaletan.

Zumaiako Institutuak Delegaritzaren laguntza eta babesarekin, PROA proiektua jarri zuen martxan orain dela bi ikasturte. Etxeko egoera medio, gizarte bazterketa egoeran dauden euren ikasleek, ikastetxetik kanpo inongo laguntzarik jasotzen ez zutela ikusirik, eta beti kalean dabilzala kontuan izanik, astero lau orduko laguntza ematea erabaki/lortu zuten. Honetaz gain, ordutegi horretan liburutegia eta informatika gela zabaltzea lortu zuten. Hezkuntza inklusiboaren aldeko apustu honetan, ikasle ohiak ere inplikatu zituzten. Ikasleek gertuko erreferenteak izan zituzten, institutuko ikasle izandakoak lau ordu hauetan zaintza eta laguntzaile lanak egiten jarri zituzten. Laguntza hauek, DBH 1,2,3 eta 4 mailakoei zuzenduak dira. Orotara 5 monitore (4 laguntzarako eta 1 informatika gelarako) eta liburutegian irakasle bat daude ikasturtean



zehar. Liburutegia eta informatika gela DBHko guztiei zabaltzen zaie, bertan lanak egiteko aukera izan dezaten. Honekin batera ikasleei eta gurasoei zein herritar orori eskainitako ikastaroak jarri dira martxan. Institutuko guraso edota gaian trebea diren herritarrek ikastaro ezberdinak ematen dituzte. 2008/09 ikasturtean eginikoak:

*Ikasleak*

- Jostundegia (DBH 1)
- Jostundegia (DBH 3-4/B1)
- Sukaldaritza (DBH 2-3 eta B1)
- Makillajea (B2)
- GIMP-Irudia (DBH3)

*Helduak (guraso-irakasle-herritar)*

- Esmalteak
- Arropa-Konponketa
- Ehungintza
- GNU/Linux
- Oinarrizko astronomia
- Patinak

*Irakasleentzat formazio espezifikoak:*

- IKT
- Elkarbizitza

Proiektu honen xede nagusiak bi direla esan daiteke; eskola-arrakastaren indizeak hobetzea eta programaren hartzaila ikastetxe osoa izatea. Bere jatorria Bigarren Hezkuntzako Laguntza eta Errefortzu Programan kokatu behar da eta Bilboko eta Zarautzeko Berritzegunetik jaso dute aholkularitza, programa hau garatu ahal izateko. Orain arteko esperientzia oso positiboki baloratu dute, ikastetxea ulertu eta bizitzeko modu komunitariogo bat dela baiteritzote. Aurrerantzean, programa egonkortzeari begira, udalaren babesa eta laguntza jasotzea ezinbestekoa izango dela ikusten dute, nahiz eta oraindik zuzenean ez duten udalarengana jo laguntza hau eskatzera.

Nerabeek aisialdiaz gozatzeko Gazteguneko eskaintza ere badute. Udal zerbitzu hau, hamaika urtetik 30 urte bitarteko nerabe eta gazteei zuzendua bada ere, 18tik gorakoen eskaintza egun ez da martxan jarri. Programa honek izaera komunitarioa dauka eta hiru zutabetan oinarritzen da: kale-heziketa programa, topagunea eta bakarkako eta taldeko proiektu eta jarraipena. Erabiltzaile nagusienak, 13-15 urteko mutilak dira. Bi programa bateratuta edukitzean, bertan dauden erabiltzaileak perfil konkretukoak direla pentsatzera daramatza bai nerabeak, baita gazteriarekin lan egiten duten profesional eta gurasoak ere. Bertako hezitzaileek Zumaiako eta inguruetako edozein nerabe gerturatzen dela diote eta beraien erabiltzaileen perfila anitza bezala deskribatzen dute. Gazteguneko hezitzaileak, kanpora ateratzen dira, kale heziketa programa dela eta, kaleko koadrilekin lan egitera. Horregatik herrian oso ezagunak dira eta nerabeek erreferentetzat dituzte. Halere, hezitzaileek kalean duten presentzia murriztu dela uste dute zenbait elkarrizketatuek.

Zumaiako nerabeak beraz, ekintzaz lepo agertzen zaizkigu. Kirola ardatz izanik, eskolaz kanpoko jarduera asko egiten dituzte eta denbora gutxi dute astean zehar astialdirako. Teknologia berriek garrantzia handia dute nerabeen bizitzan. Gero eta nabarmenagoa egiten ari da koadrilek lokalak alokatzen dituztela denbora bertan xahutzeko, baina ez da praktika orokortua oraingoz. Zumaiako koadrilen ezaugarri nagusienetakoa bertako partaide kopurua da. 20 pertsona inguruk osatzen dute koadrila. Lagun taldea mistoa izateko tendentzia gero eta handiagoa da, baina oraindik asko dira sexuka banatuak dauden koadrilak. Garai honetan ikaskideak ere izaten jarraitzen badute ere, kiroleko lagunak... txertatzen dira lagun taldean eta koadrilak



zabaldu egiten dira. Elkarrizketatuetatik batzuk, nerabeek kalean gaztelera erabiltzeko joera dutela azpimarratu dute. Hau ez dator bat guk jaso ditugun datu soziodemografikoekin.

13-14 urterekin tabernetara joaten hasten dira. Garai horretan ere, Zarautzera joaten dira asteburuetan, batik bat larunbat gauetan. Zarautzeko tabernetan ibiltzen dira, pertsona berriak ezagutu eta kasu batzuetan alkohola kontsumitzen hasten dira. 16-17 urterekin tabernetan presentzia handiagoa dute. Nahiz eta joera nagusiena, tabernara sartzeko azkarrago hastea den, tabernan modu jarraian egoteko joera orain arte bezala, 16 urtetan mantentzen da.

Beraiei zuzenean ez zaie ekintza berezirik zuzentzen kultura sailetik, noizbehinka nerabeentzako filmaren bat ekartzen dute. Antzerkia ez dute gustuko izaten nerabeek. Udaran hondartzaren inguruan dinamika polita sortzen da, baina neguan, zer egin ez dakitela geratzen dira asteburuetan behintzat. Nerabeek beraien kasa egon nahi dute eta maiz eskolako patioan, Skate pistan... biltzen dira. Nerabeak batik bat Basadi eta Aita Mari auzunean egoten dira. Gurasoekin pasatzen duten denbora murriztu egiten da.

Oikiako kasuan, adin ezberdinetako nerabe eta gazteek talde bat osatu dute. Talde ekintzaile honek, mendi irteerak eta bestelako ekintzak antolatzen ditu, bai taldearentzat, bai auzotarrentzat ere. Dinamika polita sortzen ari dira auzoan.

### **Gazteak (18-29)**

18 urtetik gorako zumaiaarrak ikasketak burutu ahal izateko, Zumaiatik kanpora joan beharra dute. Gehiengo ikasten ari da, eta batzuk lanean hasten dira. Beste batzuk ikasi eta lan egiten dute.

Kirolak adin tarte honetan ere presentzia altua du, baina tabernetan koka dezakegu adin tarte honen topalekua. Tabernetan beti koadrila berdinak egoten dira eta batzuetan hauek elkartu egiten dira. Afariak eta bazkariak antolatzea ohikoa da koadrilen artean.

Zumaiian gazteria mugimendua, orain hamabost bat urtetatik dator, Gazte Batzordea eratu zen eta talde dinamika bat sortzen saiatu ziren. Antzeko bidetik, beranduago ZUGA taldea sortu zen. 2008an indartsu ekin zioten Gaztetxea sortzeari eta herriguneko eraikin pribatu bat okupatu zuten. Udara osoan zehar eraikinean kontzertuak, ikastaroak... antolatu zituzten eta bazkariak eman zituzten autofinantziazioa bilatzeko asmoz. Eraikina oso egoera txarrean zegoen eta jabeek ez zuten Gaztetxea bertan egoterik nahi. Taldearen barruan ere azpi taldeak sortu ziren interesen arabera. Eraikin hori utzi zuten, udalak saiakera bereziak egin zituen gazteek eraikinaren egoeraz jabetu eta jabetza pribatua errespetatu zezaten eta orain, udalarekin negoziaketan ari da ZUGA, Torreberri gaztetxea kokatzeko. Eraikin hori izaera publikokoa da eta guztiz berritua dago.

Esan beharra dago, talde honek nerabeak ere mugitzen dituela. Gaztegunera joaten ez diren nerabeak dira hauek. Herritar batzuek egoki ikusten dute gazteen mugimendu hau, baina besteek aldiz nerabeak "manipulatu" dituztela diote. Udalak gaztetxea uzteko hitzarmena lortzeko ahaleginen aurrean ere iritzi kontrajarriak jaso ditugu.



Halere, Zumaiaiko gazteei dinamika falta zaiela aipatzen dute elkarrizketatuek. Talde hau ez da Zumaiaiko gazteen errepresentagarritzat jotzen eta beste gazteen jarrera pasiboa azpimarratzen dute elkarrizketatuek. Egun gazteez sortutako talde bakarrak ZUGA eta Gazte Asanblada (ez dago argi bat diren edo bi talde) dira.

Izaera orokorrekoak diren elkarteetan gazteak ere ibiltzen dira, esate baterako mendi elkartean edo ingurugiro gaietan.

Udala gazteen eskaeretara zabalik dago eta herrian zehar herritarren iritzi eta eskaerak jasotzeko gutunontziak jarri dira, baita web orria ere. Gazteek, Baleikek eskaintzen dituen baliabide teknikoak erabiltzen dituzte blog-ak eratu eta bestelako foroak sortzeko. 25 urtetatik gorako gazteen eskaera jasotzen dituzte, baina hortik beherakoena ez dira iristen.

Kultura teknikariak herriko jaiak antolatzeko deialdi irekia egiten die gazteei, baina parte-hartzea nahiko murrizta izan ohi da.

Kulturatik gazte sortzaileen ekimen eta proiektu puntual ezberdinak gauzatzen dira (komikiak argitaratzea, erakusketak antolatzea...).

Kultura sailak badu nerabe-gazteentzat 17.000 euroko aurrekontua. Bertatik, besteen artean, inguruko herrietako festetara joateko autobusak eta elkartrukatzeak ordaintzen dira.

Etxebizitzan aldetik esan beharra dago, azken aldiak auzategi oso bat eraiki dela Zumaian eta Oikiako auzoan ere babeseko etxebizitzak eraiki direla. Halere, etxebizitza eskuratzea gazteentzat arazoa da Zumaian, ez baitaude nahikorik. Horregatik Zestoa edo inguruko herrietara bizitzera joateko ohitura sortzen ari da. Gainera Zumaia herri turistikoa denez, alokairu sistema, turismotik diru-saria ateratzera begira osatua dago eta ez bertakoei etxebizitza eskaintzeko. Ikertalde Grupo Consultor S.A. enpresak eginiko ikerketak, Zumaian dauden etxebizitzetatik %85,6 okupatua dagoela dio eta bertan bizi diren pertsona kopuruaren batez bestekoa 3 pertsonakoa dela. Aldiz hutsik dauden etxebizitzak %11tik, %6 ez omen da inor bizi eta %5ak intentsitate baxuko erabilera du. Beraz, gazteek, aurrez esan bezala, aukera gutxi dituzte herrian geratzeko.

Lanari dagokionez, esan dezakegu, Zumaia herri industrializatua dela eta aldi berean turismo eskaintza zabala duen herria dela, eta beraz, jende gazteak enplegua eskuratu dezakeela herrian. Baina krisi garai honetan, hori esatea askotxo da.

Udaleko oinarritzko errenta jasotzen duten gutxiengoaren artean daude 25 urtetik beherakoak, %3ak bakarrik jasotzen baitu. Aldiz, 26-35 urte bitartekoetan kopuruak gorantz egiten du eta %15 da laguntza hori jasotzen duena.

## **Beharrak**

Puntu hau garatzeko informazioa jasotzeko haur, nerabe eta gazteengana jotzea interesgarria dela baderitzogu ere, bertan sortu daitezkeen eskaerei erantzuteko prest egotea ere beharrezko izaten da. Oraingoz elkarlanaren hasieran gaudenez, eta ez dakigunez txosten honetan agertuko den proposamena aurrera eramango den edo ez, hiru adin tarte hauei galderak egin beharrean informatzaileei egitea erabaki da. Bertan agertzen den lan-proposamena udalean onartu ezker, haur, nerabe eta gazteekin bilduko ginatke, zuzenean beraien eskaerak eta beharrak jaso ahal izateko. (ikus lan proposamena).



Hau kontuan hartuta, bertan agertzen diren beharrak, udal teknikari, eskolako zuzendari, guraso elkarteetako kideak eta ludotekako eta gazteguneko koordinatzaileak atzemandakoak dira. Elkarrizketatutako gehiengoak du haur, nerabe eta gazteekin zuzeneko erlazioa, beraz hauen ezagutzak beraien beharrak eta eskaerak zeintzuk diren jakinaraztera eramaten dituztela onartu dugu. Bestetik teknikoki atzemandako beharrak ere jasotzen ditugu.

### **Haurrak (0-12)**

Zumaiako hurrek eskaintza zabala dute, eta gure ustez, hurrek dituzten beharretariko asko aserik aurkitzen dira, dibertitu eta gozatzeko aukerak dituztelako, familiarekin eta adin berekoekin egoteko aukera dutelako, e.a. Ludoteka zerbitzuak beraien trebetasunak eta gaitasunak garatzeko, adierazpen eta parte-hartzea sustatzeko eta beraien bizitzaren protagonista sentitzeko prozesuan laguntzeko aukera eskaini behar die eta aukera hau denen eskuragarri izatea komeni da. Horregatik orain arteko zerbitzua birdefinitu egin behar dela iruditzen zaigu, gazteria planteamendu orokor batean txertatuz. Proiektu hezitzaile batean oinarritutako zerbitzu honek, ikastetxe ezberdinetako hurrei eskaintza zabaldu behar die eta are gehiago beraien gurasoekin ere lanketa egin beharra dago. Ludoteka Haurrentzako Balioanitzea den zerbitzua izatera bideratu nahi da eta hurrekin lan egiteaz gain, familiekin eta beste eragileekin ere lanketa bat egitea interesgarritzat jotzen da. Herrian dauden beste zerbitzuekin ere jarraikortasuna eta koherentzia mantentzea komenigarria da, Sustapen Sistematik eskaintzen diren zerbitzuetan arreta kontinuum batean, haur, nerabe eta gazteen hiritartasun aktiboa lantzeari begira.

Hautzaroaren adin-tarte ezberdinak lantzeko beharra ere atzeman da, 10 urtetik gorakoak, erreferente gabe daudela adierazi baita. Beraz, birdefinizio honetan arreta berezia jarriko zaio adin tarte bakoitzaren beharrak jaso eta hauei egokieraz erantzuteko lanketari.

Oikia eta Zumaiako beste auzoetan bizi diren hurrek aisialdiaz disfrutatzekeo erdigunekoek dituzten aukera berdinak izateko beharra ere jaso da. Aukera berdintasunaz gain, integrazioa eta euskara zaintzen dituen zerbitzua eskaintzearen beharraz jabetzera eramaten gaitu.

Birdefinizio honen barruan sartzen dira, egun aurreikusitak dauden aldaketak, ordutegia luzapenak edo eta bestelakoak.

### **Nerabeak (13-17)**

Nerabeen kasuan, Zumaiak badu Gazteguneko zerbitzua. Bertan bi programa bateratu eskaintzen dira, kale heziketa programa eta gazteleku gisa ezagutzen dena. Zerbitzu honen inguruan jaso diren iritzi ezberdinek, proiektuaren sakoneko balorazio bat egin behar dela adierazten digu. 2008an martxan jarri zenez, urteko ibilbidea badu eta beraz esperientzia horretan oinarrituz, proiektuaren balorazioa egin daiteke.

Aurre-diagnostikoan, proiektua aurrera eramateko oztopagarri diren zenbait elementu jaso ditugu. Proiektuak arduradun politiko bat eta bi udal teknikari ditu bere jarraipena egiteko. Funtzio banaketa hau oso konplexua da eta zaila da proiektuaren jarraipen egokia egitea. Bi programen izaera ezberdina da, bat babes izaerakoa da eta gizarte egoera konkretu batean dauden edo egon daitezkeen nerabeei zuzendua da, bestea



aldiz sustapeneko izaera du eta nerabeen parte-hartzea, dibertimendua eta ekimenak sustatzera bideratua da, hau da izaera unibertsala du. Biak bateratzeak hezitzaileen lana zaildu egiten du, bi lan mota batera egin behar baitute eta nerabeek ere ez dute egoki identifikatzen zerbitzuak zer eskaintzen dien. Bi programek ordutegi, espazio eta giza baliabideak konpartitzen dituzte uneoro eta honek bere exekuzioan arazoak sortzen dituela dirudi.

Kale-heziketa programa indartsuago bat eta kaleetan presentzia handiagoarekin eskatu dute zenbait eragilek.

Diagnostik jasotako balorazioak hauek badira ere, komenigarria litzateke, esan bezala, proiektuaren balorazio sakonago bat egitea, nola birbideratu daitekeen jakiteko. Gainera, zerbitzu honek, ludotekarekin lotura eta koherentzia mantendu beharko du, gazteria planteamendu konpartitu baten barruan. Honek udaleko teknikariak modu koordinatuan lan egitera eramango ditu, orain arte zerbitzuei eskaintzen dieten dedikazioa nabarmenki gehituz.

Bestetik, nerabeek teknologia berriak erabiltzeko duten aukera urriaren egoera ere jaso dugu. Honi udalak erantzunik eman diezaiokeen aztertu beharko da.

Gazteguneko hezitzaileak nerabeen erreferente zuzenak izan dira eta nerabeak udalarekin harremanetan jartzeko zubi lanak egin dituzte. Bide hau indartu eta komunikazio kanal sendoagoak eraikitzeke egitasmoa lantzeko beharra ere jaso da.

Nerabeentzat zuzendutako informazio landu eta beraiei eskuragarri jartzeko modua ere lantzea interesgarritzat jo da. Orain arte zuzenean joratu ezin izan den arloa izan da hau eta nerabeen eskaintzaren barruan txertatu behar da.

### **Gazteak (18-29)**

Gazteen gaiak nork jorratuko dituen argitzea beharrezkoa da. Momentu honetan, bi Batzorde Informatzaileetan lantzen dira adin honi zuzenduriko gaiak eta hau lehen bait lehen argitzea beharrezkoa da. Honekin batera gazteen erreferente izango den udal teknikariak bere funtzioak ezagutu eta gauzatzeko baliabideak izatea komenigarria da.

Bestalde, gazteen ahotsa udal eta udalerrri mailan entzuteko bideak jartzea beharrezkoa da, beraien adierazpena eta parte-hartzea sustatzeko helburuarekin. Aukera ematea nahikoa ez dela ikusi da eta hau lantzeko bideak joratu beharko dira. Parte-hartzea Zumaiako Sustapen Sistemaren muina izango da eta beraz, gazteekin hau jorratzeko moduak aztertu eta bideak eraiki beharko dira. Azken finean, beraien emantzipazio prozesuan laguntzeaz gain, Zumaiako gazteak hiritar aktibo izatea da beraiekin landu nahi dena.

Gaztegunetik 18-30 adin tarteari erantzun behar ote zaion aztertu beharko da, orain arteko ibilbidea kontuan hartuz eta gauzatzeko dauden baliabide eta planteamenduak landuz.

Nerabeekin gertatzen den bezala, kasu honetan ere informazioaren inguruan arlo hau lantzeko beharra aipatu da.



## 2.4.Zumaiako Elkartegintza

Haur, nerabe eta gazteen joerak jaso ditugun bezala, Zumaiako Elkartegintzaren erretratua aurkeztu nahi genuke. Atal hau osatzeko zailtasun bereziak izan ditugu, honen inguruko datuak batzeko ohiturarik ez baitago, beraz zaila da Zumaiako Elkartegintzak izan duen ibilbidea eta joerak aztertzea.

Elkartegintza gazteek zuzenean parte hartzen duten espazioa da. Bertan beraien ekimenak taldean garatzen dituzte .

Gazte elkarteak hiru motakoak izan daitezke. Izaera Estrategikokoak, Izaera Orokorrekoak edo Zerbitzura Bideraturiko Elkarteak.

1.- Izaera Estrategikoko Elkarteak: gazteek sortuak dira eta beraien intereseko gaiak jorratzen dituzte. Gazteentzako gazteek egina.

2.- Izaera Orokorreko Elkarteak: gazteek osatzen dituzte, baina elkarte honetatik lantzen diren gaiak ez dira soilik gazteen interesekoak. Adibidez, gazteen talde ekologista.

3.- Zerbitzura Bideraturiko Elkarteak: gazteentzako zerbitzuak edo ekintzak eskaintzen dituzte, baina ez dira gehiengo batez gazteek osatua.

Elkartegintzaz hitz egiten dugunean, ez ditugu bakarrik kontutan hartzen izaera juridikoa duten taldeak (elkarte, fundazio...). Forma juridikorik izan gabe, baina formalizazio maila bat duten taldeak ere kontenplatu ditugu.

### **Egoera**

Ondoren, Zumaiako herrian dauden izaera ezberdineko elkarteak agertzen dira. Badaude, gizarte arloarekin erlazioa dutenak, kirol elkarteak, kultura, euskara... arlokoak ere.

Zumaiako elkarte ugari daude, baina ondoren ikusiko dugun bezala, oso elkarte gutxi dira gazte izaera estrategikoko elkarteak. Normalean izaera orokorreko elkarteak dira eta zenbait kasuetan gazteek parte-hartzen dute bertan.

Elkarteak arloka banatzen saiatu gara. Hona hemen sailkapena:

#### **Kirola**

- Zumaiako futbol taldea
- S.D. Pulpo
- Itsas Gain, K.E.
- Aita Mari arraun elkarte
- Zumaiako kirol elkarte
- S.D. Anade
- Inda Mendi K.B.
- Kodaore judo taldea
- Zumaiako txirrindulari K.E.
- Zumaiako Triatloi taldea
- Zumaiako Itzurun surf kirol taldea
- Zumaiako Bela elkarte
- Olarru-sub.
- Zumaiako Koryo Taekwondo kirol taldea





#### *Gizarte arloa*

- Alkoholiko anonimoak
- Al-Anom. (alkoholarekin arazoak dituzten familiartekoen elkarteak)
- Zumaiako odol-emaileen elkarteak
- Zumaiako Karitas
- Hospitalarios NTra. Sra de Lurdes
- Malen etxea
- Darahli elkarteak
- Beheko Plaza elkarteak

#### *Kultura*

- Musika eskola
- Udal Musika Banda
- San Pedro Txiki Abesbatza
- San Pedro Abesbatza
- Beheko Plaza Abesbatza
- Ostarrena zine forum taldea
- Txistulari banda
- UCC
- Jakintza kultur elkarteak
- Erkibe kultur elkarteak
- Inpernupe kultur elkarteak
- Argazki elkarteak
- Liturgi abesbatza

#### *Gastronomikoa*

- Txepetxa elkarteak
- Inda Mendi elkarteak
- Aita Mari elkarteak
- Itxas Gain elkarteak
- Pulpo elkarteak
- Inpernupe elkarteak
- Anade elkarteak
- Narrondo elkarteak
- Zumea elkarteak
- Txoaskin elkarteak

#### *Ingurumena*

- Zumaiako Natur Elkarteak

#### *Euskara*

- Txinparta Euskara taldea
- Baleike Kultur elkarteak
- Zumaiako Bertso Eskola

#### *Merkataritza*

- Zumaiako merkatari elkarteak

#### *Auzoetako elkarteak*

- Artadi
- Narrondo festa batzordea
- Estazioko festa batzordea
- Oikiako jai batzordea

#### *Emakumea*



- Zumaiako gazte feministak

*(Malen etxea ere sartu genezake bertan.)*

#### **Gazteak**

- ZUGA

Zumaiako herrian, behin eta berriz agertzen den bezala, kirolak presentzia handia du. Herriko elkarteak aztertuz gero, kirol klub en zerrrenda luzea dela ikus dezakegu. 14 kirol elkarte edo klub daude herrian. Beraz elkartegintzaren pisurik handiena kirolean kokatua dago.

Kultur arloan diharduten taldeak ere ugari dira. Bertan izera ezberdineko taldeak agertzen dira. Aipatzekoa da berriki indarberritu den argazki elkarte. Elkarte gastronomikoak ere ugariak dira eta hauek kirol elkarteekin erlazio estua dute.

Elkarte hauen datu bakanak, Emakume eta Gizonen Berdintasun Diagnostikoan jasotakoak dira. Bertan, elkarteetan parte-hartzea, generoak bi zentzuetan markaturik agertzen dela dio. Batetik, emakume gutxiagok parte-hartzen duelako elkarteetan, eta bestetik elkartearen izaeraren arabera emakume eta gizonen partaidetza ezberdina delako.

Gazteak hauetako talde ezberdinetan hartzen dute parte, baina gazteez osatutako taldea, gazteen gaiak jorrazteko, bakar bat topatu dugu: ZUGA. Aurrez parrokiari astialdi talde bat zegoen, baina desagertu egin zen.

Kultura Batzordeak, diru-laguntzen bidez, kultur taldeak babesten ditu. Diru-laguntzak, ekipamenduarentzat edo jarduerentzat izan daitezke.

#### **Beharrak**

Elkartegintzaren inguruko datuak biltzen hastea da lehen atzematen den beharretako bat. Herriko elkarte naiz taldeen errealitatea eta bilakaera aztertzen lagunduko duten datuak jasotzeko beharra dago. Zenbat talde dauden jakiteaz gain, zer egiten duten, zenbat partaide dituzten,.. jaso beharko litzateke urtero. Horrela, herriko elkartegintzaren ezagutza sakonagoa izango lukete udal teknikariek eta beraien inguruko politikak lantzeko erraztasun handiagoa izango luke udalak.

Herriko haur, nerabe eta gazteak batik bat kirol elkarteetako, musikako... partaide dira. Beraiek osatutako talde gisa agertzen den bakarra ZUGA da. Gazte talde honekin lanean jarraitzea komenigarri ikusten da, beraien kabuz sortutako sustapena bultzatzearen.

Gazteei elkartzeko bideak erraztu eta parte-hartzea sustatzen duten dinamikak sortzeko beharra atzeman da. Herriko gazteei, dinamismo eza atxikitzen zaie. Horregatik, eta aurrez esan bezala gure muina parte-hartzea dela kontuan izanda, gazteak euren interes komunean oinarritutako taldeak edo eta elkarteak sortzeari begirako dinamizazio lana egin behar da.



### 3. ZUMAIAKO GAZTERIA POLITIKAK: OINARRIAK, GARAPENA ETA EGUNGO EGOERA

#### 3.1 Udal egitura eta Sustapen Arloa

Zumaiako *Udalbatza* alkateak eta hamabi zinegotziek osatzen dute. Hamahiru kargu politiko hauek, sei alderdi politiko ordezkatzeko dituzte. Horrela, PSE-ko bi zinegotzi, EB-B/Aralar-en ordezkari diren beste bi, EAJ-k lau ordezkari, hiru Talde Mistokoak eta bi EAKoak. Zumaiako EA eta Ezker Abertzalearen (Talde Mistoa) udal taldeek akordioa sinatu zuten 2007an udal gobernua eratu aurretik. “Alderdi desberdinen izaera eta desadostasunaren gainetik, Zumaiaren alde elkarlanean lan egiteko konpromisoa” agertzen duen akordioa da. Berari esker, EA-k du alkatetza eta Alkateordetza Talde Mistoari dagokio.

*Gobernu Batzordeko* partaideak 5 dira. EA eta Talde Mistoko zinegotziek eta alkateak osatzen dute berau. Kide bakoitzak *Batzorde Informatzaile* bat edo biren ardura du, alkateak salbu, honek lau Batzorde Informatzailearen ardura baitu.

Zumaiako Udalak hamabi Batzorde Informatzaile ditu:

- Hirigintza eta Ingurumena
- Zerbitzuak
- Pertsonala
- Ogasuna
- Euskara
- Hezkuntza
- Kirolak
- Kultura eta Jaiak
- Turismo eta Merkataritza
- Gizarte Zerbitzuak
- Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gazteria.
- Musika Patronatua

Udaleko *Sailak*, Batzorde Informatzaileekin nahiko bat datoz. Esan daiteke sailik ez duen Batzorde Informatiboa, berriki sortu den “Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gazteria” Batzordea dela. Hona hemen sailak:

- Euskara eta Hezkuntza
- Gizarte Zerbitzuak
- Hirigintza
- Idazkaritza
- Kirola
- Kultura
- Ogasuna
- Turismoa eta Merkataritza

##### 3.1.1. Sustapen Arloa

Zumaiako udalean gazteria arloa zatikatua aurkitzen da. Haur, nerabe eta gazteei eskainitako zerbitzuak bi sail ezberdinetatik bideratuak daude eta 3 Batzorde Informatiboetan lantzen dira. Ez dago Gazteria Teknikaririk, figura honi dagozkion funtzioak batik bat bi teknikarien artean banatuak daude, baina ez modu argi batean. Teknikari hauek beraien saileko funtzio nagusiak bete ondoren, bigarren maila batean egitekoa edo puntualki landu beharreko gaia bezala bizi dute gazteria.

Haurrak, hezkuntzaren arloari egotzi zaizkio, beraz, Euskara eta Hezkuntza saila da adin tarte honen arduraduna. Horrela Hezkuntza Batzorde Informatzailean lantzen dira,



beharraren arabera, haurren sustapenari dagokien gaiak. Honen ardura Talde Mistoko Nerea Epelderi dagokio. Euskara eta Hezkuntza teknikariak du maila teknikoaren ardura. Aldi berean, saileko arduraduna ere badenez, euskara gaiak jorratzen dituen teknikariaren ardura dauka. Euskara Saila udaletxean kokaturik dago.

Nerabeen sustapena Kulturari dagokio. Kultura eta Jaiak Batzordean lantzen dira bertako gaiak eta udal arduraduna Pilar Etxabe, Kultura, Turismo eta Merkataritza zinegotzia da. Kultura Teknikariak Kultur Etxean egiten du lan eta bertako langileen arduraduna da.

Gazteen sustapena aldiz ez dago oso argi zeini dagokion, alde batetik Kultura eta Jaiak Batzordean lantzen da eta bestetik, Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gazteria batzordean. Orain arte Kultura Teknikariak izan du gazteen ardura.

2007an sortua da Batzorde Informatzaile berria: "Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gazteria". Teknikaririk bertan lanean ez baldin badago ere, dagoeneko lanean ari dira. 2008an Elhuyar Fundazioaren bidez, aurrekontu parte-hartzaileak gauzatu ziren. 2009an gazteriarik gertutik ukitzen duen gaia jorratzen ari da. Alkatea Batzorde honen arduraduna denez, beraz Zuga eta Gazte Asanbladako gazteekin Gaztetxearen inguruan hitzarmen batera iristeko elkarrizketetan ari da. Gaztetxea Torreberrin kokatzea da udalak talde hauei egin dien proposamena. Batzorde honetan ukitzen diren arloak anitzak badira ere, teknikari bat jartzea aurreikusten da. Bertatik jorratzea aurreikusi den arlo nagusia, partaidetza dela dirudi. Beraz, udalaren asmoak guztiz sintonian datoz ondoren proposatzen den Sustapen Sistemarekin, izan ere honen zutabea haur, nerabe eta gazteen partaidetza sustatzea da. Zumaiako haur, nerabe eta gazteak beraien hiritartasuna aktiboki garatu dezatela, da asmoa, etorkizunean herriko gai eta arlo ezberdinetan inplikaturako eragileak izan daitezten.

Amaitzeko aipatu behar da, nerabe eta gazteen gaiak jorratzeko, hiru sail biltzea aurreikusi zela ikasturtean zehar, hiru alditan (hiruhilero), baina errealitatean, bilera hauek burutzeko zailtasunak egon dira. Honela Euskara eta Hezkuntza Teknikaria, Kultura Teknikaria eta Gizarte Langilea biltzea zen asmoa, Pilar Etxabe eta Nerea Epelde zinegotziekin batera, nerabeentzako zerbitzuen inguruko jarraipena eta koordinazioa burutzeko. Baina horrelako koordinazioa aurrera eramatea konplexua suertatu da.

Ez dago gazteria aurrekontu bateraturik, zerbitzuak sailka banatuak daudenez, sail bakoitzak gazterari eskaintzen dion aurrekontu bat du (Euskara eta Hezkuntza sailak eta Kultura sailak).

## **3.2. Zumaiako Gazteria Politiken bilakaera eta egungo egoera**

Zumaiako gazteria politiken bilakaeraren azterketa egin ahal izateko, orokorrean gazteria politikek izan duten garapena azaldu beharrean aurkitzen gara.

### **3.2.1. Gazteria kontzeptu eta politiken garapen historikoa**

Gazteria kontzeptu aldakorra da eta gizartean ematen diren aldaketek bertan eragina dute. Honela, kontzeptua desberdin ulertu da unearen, lekuaren eta ikuspegiaren arabera.



Gazteria ulertzeko modu desberdinak egon diren bezala, Gazteria politikei buruz hitz egiterakoan ere oso bestelako bertsioak izan dira, gizartean ematen diren aldaketen eraginaren arabera.

Hortaz, une historikoaren arabera, gazteria arloko esku-hartze publikoa desberdina izan da. Diktadura garaian, gazteei zuzenduriko eskaintza batez ere aisialdian murgildu zen, erregimen frankistak eliza katolikoarekin batera osatutako gazte entitateek eskaintako ongintza-laguntzazko jarduera batzuekin batera.

70. hamarkadaren amaieran erregimen aldaketarekin, batez ere aisialdiari zuzenduriko eskaintza garatzen jarraitu zen, baina hezkuntza programarik eta garapen pertsonalik gabe. Gazteen arazoei aurre egin eta konponbideak bilatu ordez, gazteen arazoak baztertzeko zituen politika bat garatzen zen.

Aurrerago, Gazteria Zerbitzuak sortzen hasi ziren eta partaidetzazko politikak planteatu ziren. Jardueren ordez, baliabideak eta tresnak eskaintzen hasi ziren: informazio zerbitzuak, aholkularitza zerbitzuak eta aisialdiko eskolak. Partaidetzazko politikekin, gazteek gazteria politiketan parte hartu behar zutela planteatu zen. Horren ondorioz, Gazteria Kontseilua sortu zen eta laguntza ekonomikoak ematen hasi ziren.

1985 urte garrantzitsua izan zen gazteria politiketan. Gazteriaren Nazioarteko Urte izendatu zen, eta Gazteriaren Liburu Zuria argitaratu zen. Gizarte agenteek eta administrazioak elkarlanean jardun behar zutela ikusten hasi zen, eta politika integralen garapenaren alde egin zuten.

Politika integralek gaztaroa emantzipaziorantz eta osoko autonomia pertsonalerantz doan trantsizio alditzat jotzen dute. Eta gazteak gizarte maila heterogeneoko kide gisa jotzen dituzte, eta egoera okerragotik abiatzen direnen alde egiten dute.

Zeharkako politikak dira eta trantsizio prozesuan eragiten duten eremu nagusietan jarduten dute: prestakuntza, lana eta etxebizitza. Helburua gazteak gizartean eta lan munduan txertatzea da.

Hauek dira politika modu hauen abantailak:

- Gazteak homogeneizatzearen kontzeptuarekin hautsi eta profil heterogeneoak dituzten gizarte maila gisa ulertzen den gazteriaren alde egiten dute. Horrek gazteen egoera anitzak kontuan hartuko dituen arreta zehatza eskatzen du.
- Baliagarri dira, hainbat arlotan, gazteei zuzenduriko programak sustatzeko eta finkatzeko.

Bestalde, zenbait eragozpen ere badute, besteak beste:

- Ikuspegi hau toki administrazioan aplikatzeko mugak daude, udalek sektore hauetan eskumen eta baliabide gutxi dituztelako.
- Administrazioan ez dago politika integralen oinarrizko premisak garatzeko ohiturarik: lan koordinatua unitate desberdinen artean, ebaluazio sistematikoa eta hiritarren partaidetza.

Aurrerago '*politika indartzaileak*' deiturikoak sortu ziren. Horiek gazteria talde soziologikotzat jotzen dituzte, gazteak gazte izaeraren arabera lantzen ditu. 'Gaztea' eskubideak eta betebeharrak dituen hiritartzat jotzen da, eta gazte ezaugarriari erreferentzia egiten dieten elementu ez materialak hartzen dira barne. Planteatzen den



esku-hartzea gazteria unitate espezifikoaren bitartez garatzen da. Proposamenak gazte izaeraren berezko ezaugarriak diren ardatzetan murgiltzen dituzte, eta aisialdiko, kulturako, olgetako eta partaidetzako eremuan jarduten dute.

Hauek dira mota honetako politiken abantailak:

- Gazteria Unitate/Zerbitzu bat izatea eskatzen du, gazteria politiken balioa handitu ahal izateko.
- Gazteenganaino iristen dira, haien eskaerak biltzeko.

Hauek dira eragozpenak:

- Arreta osoa gazteen ezaugarri diren elementuetan jartzearen irudia eskain dezakete, heldu izateko trabak aztertu gabe.
- Gazteen gizarte egoeran eragin mugatua dute.

Gizarte aldaketan sakontasuna eta haurrei, nerabeei eta, zehazki, gazteei eragiten dien modua kontuan hartuta, nahitaezkoa dirudi azken horien aldeko jarduerak positiboak bultzatzea eta osoko eta baiezko jarduerak bat garatzea, haien garapen prozesuan eta eskubideen aitortzean lagundu ahal izateko, haur, nerabe eta gazte izaeratik bertatik.

Beraz, gazteen bizitza baldintzak hobetzea eta politika integralen bidez emantzipatzeko bidea ematea bezain garrantzitsua da gazteak bezalako itzaropenak eta interesak adierazteko bideak eskura jartzea eta haien ekimenak garatzea, politika indartzaileen politiken bitartez.

Dena den, gazteria politika mota baten aldeko apustua egiteak ez du esan nahi bestearen aurka egotea; hau da, politika integralak ez dira politika indartzaileen aurka jartzen, partaidetzako politika bat abian jartzeak ez du esan nahi gazteria zerbitzu bat baztertu behar denik,... (Aurrerako sakonki azalduko dugun arren, gaur egun Gipuzkoan proposatzen den Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemak honetan oinarritzen da, hau da, politika integral eta indartzaileen arteko bateratzean)

### *Euskal Autonomia Erkidegoa*

Gurera etorrita, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 1979. urtetik, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu du gazteria gaiari dagokion eskumena. Garai horretan bertan, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza sortu zen. EAEn gazteriarantz zuzenduriko bi plan garatu dira (1999-2001 eta 2002-2005). Gazte Planek emantzipazioaren, gizarte txertaketaren eta heldutasunaren prozesuan laguntzea dute helburu, eta ikuspegi integrala duen gazteria politikako planteamendu batean oinarritzen dira.

1983. urtean Lurralde Historikoei buruzko Legea onetsi zen. Aldundiek gazteria arloetako garapenean eskumenak izatea ahalbidetu zuena. Orduan, erakunde horiei aipatutako zeregina garatu ahal izateko egiturak sortzen hasi ziren.

### *Gipuzkoako Lurralde Historikoa*

Gipuzkoari dagokionez, hamaika urteko ibilbide baten ondoren, Gazteria Zerbitzuak gogoeta estrategikoko prozesu bat planteatu zuen. Horren ondorioz, "2001-2004. urtetako Gazteria Zerbitzuko Plan Estrategikoa" izeneko dokumentua sortu zen.



Dokumentu horretan egoera-diagnosi bat hartzen da abiapuntu, Gazteria Zerbitzuak lurraldean garatu beharreko zeregina, ikuspegia, estrategiak eta xedeak definitzeko. Plan horrek administrazio maila desberdinen arteko lankidetzaren proposatzen du, Gipuzkoako haur-gazteen kolektiboaren premia guztiak barne hartu ahal izateko. Plan estrategiko horretan zera proposatzen da: Aldundia udalak baliabidez hornitzeko agentzia espezializatu bilakatzea, udalek, hein berean, -gertutasunetik eta gazteek udalei egindako balorazio onetik, eta zerbitzuak eskaintzeko gune naturala delako, besteak beste- haurrei, nerabeei eta gazteei etengabeko arreta eskain diezaieten. Hauek dira GFAk udalei eskaintzen dizkien zerbitzuak: informazioa, ikerketa eta dokumentazioa; prestakuntza; aholkularitza eta baliabideen transferentzia.

Lehenengo plan estrategikoaren ondoren, "Zerbitzua Berbideratzeko Plan" bat sortu zen, helburu estrategiko berriei zuzenduta. Plan horren ondorio nagusia, 2003ko maiatzean sortu zen Bulego Teknikoa izan zen. Egun, 6 pertsona teknikok osatzen dute eta horiek bere gain hartzen dute Gipuzkoako udalei zuzenduriko aholkularitza zerbitzuaren garapena. Bada Bigarren Gazte Plan Estrategiko bat, 2005-2008. urte bitartekoa. Horrek elementu berriak gaineratu zituen, baina lehenengo planaren orientazioa errespetatu zuen.

Duela gutxi, GFAtik, partaidetzazko prozesu baten bidez (Gaztematika) Haur eta Gazteriaren Sustapeneko Sistema sortzea bultzatu da, honako helburuekin: dagoeneko burutzen diren jarduerak kontuan hartzea eta bistaratzea (hobekuntzaren, egituratzaren eta iraunkortasunaren baldintzen alde eginez) eta agente bakoitzak, erantzukizunak eta eskumenak betez, garatzea erabakitzen dituen etorkizuneko ekimenetarako erreferentzia esparru orientagarria, sustatzailea, eskuragarria eta malgua eratzea.

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapen Sistemaren helburua honako hau izango litzateke: *haur, nerabe eta gazteei haien egoera edo prozesuaz disfrutatzen eta garatzeko bidea ematea, dimentsio bikoitzean: etapa gisa oso adierazgarria den etapa garrantzitsu eta baliotsu moduan eta, heldutasunaren, irakaskuntzaren eta gaitasun pertsonalen eta giza loturen bidez, heldutasun etaparainoko trantsizio arrakastatsua eta egokia garatzeko aukera ematen duen etapa moduan, betiere, hiritar aktiboaren kontzeptua abiapuntu dela.*

### 3.2.2. Zumaiako Gazteria Politiken bilakaera eta egungo egoera

Zumaiako Gazteria Politiken bilakaera eta egungo egoera aztertzeko, Haur eta Gazteen Sustapen Sistemak proposatutako eredu jarraitu dugu, gero Zumaiako bertako egoera aztertzeraz igarotzearen.

#### 3.2.2.1. Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapen Sistema

Haur, nerabe eta gazteei haien egoera edo prozesuaz disfrutatzen eta garatzeko bidearen alde egiteko, Udalak etengabeko arreta garatu beharko du, kolektiboa osatzen duten adin tarte desberdinei begira (haurtzarora, nerabezarora eta gaztarora). Etengabeko arreta hau, 6 ekintza eremu orokorretan egituratzen da, kolektibo horren premia desberdinekin bat eginez.

Proposatutako sistemaren arabera, udalak ere haur eta gazteria sustapeneko udal unitate bat eduki beharko du, zeregin hauekin:

1. Sistemaren zerbitzuak hornitzea eta koordinatzea udal eremuan, dagozkien zerbitzua eskaintzen edo kudeatzen dituzten entitateekin edo enprekin lankidetzan.



2. Hurrei, nerabeei eta gazteei (esaterako, oporretako udalekuak) edo entitateei (esaterako, diru-laguntzak) zuzenduriko eta zerbitzuen bidez bideratzen ez diren udal esparruko jarduerak eta ekintzak kudeatzea.
3. Sistemaren organoei laguntza tekniko dinamizatzailea eskaintzea udal eskalan.
4. Sistemaren planifikazio eta ebaluazio prozesuen garapena dinamizatzea eta bermatzea udal mailan
5. Udal eremuan, Hartzaileen eta Gipuzkoako Haur eta Gazteriaren Sustapenerako Sistemaren interesatutako edo inplikaturako agente edo instantzien partaidetza aktibatzea eta animatzea.
6. Sistemaren komunikazioa eta barne eta kanpo harremanak kudeatzea udal mailan.
7. Udaleko kudeaketa arloan, Udalak haur eta gazteriaren sustapenerako erabiltzen dituen baliabideak (ekonomikoak, materialak, giza baliabideak, informazioa) eta azpiegiturak kudeatzea.
8. Modu aktiboan parte hartzea ezagutza eta aholkularitza teknikoa kudeatzeko prozesuan eta kalitatea kudeatzeko dinamikan; haur eta gazteriaren sustapenerako foru unitateak koordinatuta eta dinamizatuta.

6 ekintza eremu orokorretan oinarritutako etengabeko arreta hura adin desberdinei zuzenduriko zerbitzu modura gauzatuko litzateke. Ekintza eremu horiek osoko sare koherente bat osatzen dute, eta zerbitzuetan gauzatzen dira.

Hauek dira ekintza eremuak:

- Informazioa.

Informazioaz ari garenean, garaiz, nahiko, eraginkortasunez eta modu antolatuan eta adierazgarrian emandako datuez hitz egiten ari gara; hots, hartzaileentzat interesgarriak diren arloetan baliabide edo prozesu interesgarri eta eskuragarriak eta haien ezaugarriak buruzko datuak egotea. Informazio hori, bereziki, hurrek, nerabeek eta gazteek, beste eremutan edo sistemetan eskura dituzten baliabideak eta aukerak (informazio zehatzagoa barne) eskura jartzeko funtsezko tresna bat da (besteak beste, lana, etxebizitza, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, osasuna, diru-sarreraren bermea, kultura...).

- Orientazioa.

Orientazioaz hitz egiten dugunean, hurrei, nerabeei eta gazteei, aukerak identifikatzeko eta erabakiak hartzeko laguntza (zehatzagoa edo orokorragoa) bat aipatzen ari gara.

- Laguntza.

Laguntzaz ari garenean, hurrek, nerabeek eta gazteek erabakiak hartzeko, jarduerak burutzeko eta loturak eraikitzeko nolabaiteko egonkortasuna eta jarraipena duen laguntzazko eta jarraipenezko harreman bat aipatzen ari gara. Pertsonen arteko konfiantza eraikitzeko prozesua laguntzazko harremanaren berezko ezaugarria da. Aipaturako prozesua, alderdi bakoitzaren zeregin desberdina eta jarrera desberdina alde batera utzi gabe, hartzaileen eta pertsona laguntzaileen artean sortzen da. Laguntzak pertsonen arteko nolabaiteko sendotasun eta iraupenerako harreman interaktiboa, zuzena eta presentziala nahitaezkoa du. Ezinbestez pertsonalizatuta dagoen harreman bat, talde esparru batean eman daitekeen arren.

- Aisia hezitzailea.





Aisia hezitzaileaz ari garenean, haurren, nerabeen eta gazteen aisialdian burututako esku-hartze mota batez mintzatzen ari gara. Esku-hartze hori olgetarako jarduera atsegingarria izan behar da, bizitzarako gaitasunak, portaerak eta balioak horren bidez beregana edo gara ditzaten. Udaleko berezko azpiegituren barne burutu daitezkeen jarduerak aipatzen ari gara, esaterako: kalean edo naturan. Bai ikasturteko edo lan aldiko arratsaldetan eta asteburuetan, bai opor garaietan. Gaitasun tekniko zehatzetan olgeta edo prestakuntza helburu duten jarduerak izan daitezkeen arren (esaterako, informatikako tailer bat), haien ikuspegia harremanezko gaitasun orokorragoetara zuzentzen da, elkarbizitzako, solidaritateko, gizalegeko,... balioekin eta portaerekin lotuta.

- Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak.

Adierazpenerako eta partaidetzarako bidez ari garenean, benetako aukerak sortzeari eta dinamizatzeari buruz ari gara, haurrek, nerabeek eta gazteek iritziak adierazi, proposamenak egin, erabakiak hartu, erantzukizunak bere gain hartu, kudeatu edo batera kudeatu eta horientzat garrantzitsuak diren prozesuetako neurriren bat kontrolatu ahal izateko, bai gazteria sailaren jarduera esparruan, bai hortik kanpo. Hain zuzen, pertsona horiek, modu zuzenean edo zeharka, eragiten dieten egoeretan eragina sortu ahal izatea helburu zuzena duten baliabideez eta jardueraz ari gara.

- Aukerak sortzeko eta ekoizteko laguntzak.

Aukerak sortzeko eta ekoizteko laguntzez ari garenean, aukera errealak sortzeaz eta dinamizatzeaz ari gara, haurrek, nerabeek eta gazteek sormenerako eta ekoizpenerako gaitasuna sustatzen eta bideratzen dituzten jarduerak eta proiektuak garatu eta bistaratu ahal izateko.

Lehen esan dugun bezala, 6 ekintza eremu orokorretan sailkatutako etengabeko arreta hori, adin tarte bakoitzari zuzenduriko *zerbitzu* moduan gauzatzen da.

*Zerbitzuak* eskaintza antolatzen, egituratzen eta irudikatzen den modua dira, eta hartzaileengandik gertu dauden dispositiboak dira, egonkorrak edo ez hain egonkorrak. Zerbitzu bakoitzak ekintza eremu guztiak edo horietako batzuk barne hartzen ditu.

Hauek dira haurrei, nerabeei eta gazteei zuzenduriko zerbitzuak:

- Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua: aurretik aipatutako sei erantzun motak (ekintza eremuak) eskaintzen dizkie 12 urte arteko haurrei.
- Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua: aurretik aipatutako sei erantzun motak eskaintzen dizkie hamahiru eta hamazazpi urte bitarteko nerabeei.
- Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzua: aurretik aipatutako sei erantzun motak eskaintzen dizkie hamazortzi eta hogeita bederatzire bitarteko gazteei.
- Haur eta Gazteentzako Informazio zerbitzua: informazioa eskaintzen duen zerbitzu bat da, halaber, orientazioa eta laguntza ere eskain ditzake.
- Haurren eta Gazteen Ekimenen Aldeko Zerbitzua: aukerak sortzeko eta ekoizteko adierazpen, partaidetza eta laguntzarako bideak eskaini ditzakeen zerbitzu bat da.

Gure ustez, zerbitzu aukera horrekin, hasiera batean, haurrak, nerabeak eta gazteak, egin ditzaketen bizi-ibilbidean, sor daitezkeen etengabeko premiak barneratze



tresnaz hornitu ditugu. *Jarraipen* ideia horretaz gain (alegia; adin tarte guztietarako zerbitzuak existitu daitezen), zerbitzuen garapenak *koherentzia* bezalako funtsezko irizpidea ere kontuan hartu beharko luke (alegia, udalak, Gazteria Saitetik nahiz beste Saitetatik, burutzen dituen jarduera desberdinak helburu berberak lortzera bideratuta egotea).

Amaitzeko, zerbitzu horiek garatzerakoan, zeharka lantzeko hainbat balio hartu behar ditugu kontuan, besteak beste: gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, elkartzitza eta euskararen erabilera eta euskal nortasuna eta kultura eraikitzearen esperientziak, desberdintasunaren baloraziotik:

- Eskaintza egiterakoan, genero ikuspegia kontuan izan behar da eta neska eta mutilen egoerak eta beharrak desberdinak direla kontuan hartu.
- Hizkuntza normalkuntza sustatzea, bai euskararen erabilerari dagokionez, bai euskal nortasunaren eta kulturaren errespetuari dagokionez, desberdintasunaren baloraziotik.
- Zailtasunen bat duten neska-mutilei, nerabeei eta gazteei erraztasunak eman behar zaizkie horiei zuzenduriko zerbitzu eta ekipamendu desberdinak erabiltzeko, jarduera konpentsatzaileak sustatuz.

### 3.2.2.2. Zumaiako Gazteria Politiken bilakaera egungo egoera

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapen Sistemak planteatzen duen eredia kontuan hartuz Zumaiako Gazteria Politiken azterketa bat egingo dugu jarraian. Horretarako batik batik elkarrizketetatik jasotako datuetan oinarritu gara. Aipatzekoa da zenbait datu udal artxibotik jaso dituztela teknikariek, batik batik bilakaera historikoa egiteko, baina oro har artxibatutako datuak ez daude osatuak, beraz elkarrizketatuen oroitzenetik berreskuratu dira.

Zumaiako udala gazteria gaiak jorratzen ibilbide luzea du, baina ez dauka Gazteria Arlo garatua. Izan ere denboran zehar Gazterian inguruan sortzen joan diren programa eta zerbitzuak, sail ezberdinetan banatuak egon dira eta egun ere, aurrez adierazi den bezala, sail ezberdinetatik bideratuak daude.

Martxan jarri zen lehen zerbitzua, haurrentzako ludoteka izan zen. 1991. urtean, ludoteka irekitzeko asmotan Kultura Teknikariak proiektu bat landu zuen eta 1992ko irailean Lahar Elkargoarekin ludoteka kudeatzeko hitzarmena sinatu zen. Garai hartan bi begirale zeuden kontratatuta.

Ludotekako begiraleak enpresa horretan 10 bat urte igaro ondoren, konkurtso berriari begira, enpresa ezberdin batekin aurkeztea erabaki zuten. Urtxintxa izan zen enpresa aukeratua eta orduz geroztik herriko ludotekaren kudeaketa eraman du. Bi begirale izatetik, hiru langile izatera pasa ziren. Hiruretako batek begirale funtzioak izateaz gain, koordinatzaile funtzioak ere betetzen zituen. Astean 16 orduko dedikazioa zuten, ordu 1 planifikaziorako eta gainontzekoa arreta zuzeneko eskaintza. Hasieran, asteazkenetik larunbatera zabaltzen zen zerbitzua, baina larunbatek arrakasta gutxi zuten, bertaratzen ziren haur kopurua gutxi zela kontuan harturik, eskaintza asteartetik ostiralera izatera pasa zen.

Zumaiako ludoteka beti izan da arrakastatsua bazkide kopuruan oinarrituz neurtzen bada. 2004 urtean, 230 bazkide zituztenez, zerbitzua zabalik zegoen asteko bi egun aukeratu behar izan zuten erabiltzaileek. Horrela, egunero 50 erabiltzaile izatea lortu



zuten, zerbitzua egokiago eskaintzeko aukera izanik. Honek bazkidetza sistema errefortzatu zuen.

Udaletik egin den zerbitzuaren jarraipena, nahiko arina izan da. 2007an hau konpontzeko asmotan, zerbitzuaren ardura, Euskara eta Hezkuntza teknikariari egokitu zitzaion. Teknikaria, zerbitzuko koordinatzailearekin elkartzen da zerbitzuaren inguruan sortzen diren gaiak lantzeko. Ez dago koordinazio sistemarik, beharren arabera biltzen direlarik.

Hasieran aipatu bezala, egun, 2009an ludotekako langileak udal langileak izatearen erabakiaren ondorioz, aukeraketa prozesu batean murgilduak daude. 3 postu atera dira, Haur teknikari laguntzailea, eta bi ludotekari postu.

Ludotekak orain arte honako helburu hauek izan ditu:

- Aisialdiaz gozatzea
- Euskara
- Gaitasuna sustatu
- Ikastetxeen arteko harremanak hobetzea
- Jolasak erakutsi
- Eguneroko zehatzak

Asteartetik ostiralera egoten da zabalik, arratsaldeko 17etatik 19:30ak arte. Adin tarte bakoitzeko ordutegia banatu bazen ere, gurasoak ez ziren ados egon aldaketarekin eta egun ordutegi bakarra dago. Bazkide sistema bat dute, urtean 21 euroko kuota ordaintzen delarik. Ikasturtearekin batera hasten da ludoteka martxan, eta jai naturaletan itxita egoten da. 6-12 urteko haurrentzat eskaintzen den zerbitzua da. Itsas kiroldegian kokatua dago, baina bertako kirolariek espazio gehiago behar dutenez, udala aukera ezberdinak lantzen ari da bere kokaleku berrirako (Beheko plaza...). Aurreko legegaldian, Torreberrira egin nahi zen aldaketa, baina eraikuntza hau ez zen ludotekaren beharretara egokitzen. Egun ludotekak 100 bat bazkide ditu. Erabiltzaile gehienak 1 eta 2 mailakoak dira, hau da 6 eta 7 urte. Herriguneko bi eskoletara egiten da eskaintza baina egun ez dago Maria eta Jose ikastetxeko ikasle den erabiltzailerik. Honen zergatia ezezaguna zaigu, baina ludotekaren ibilbidean zehar eman den errealitatea da hau. Ludotekak orain arte izan duen aurrekontua, 6 hileroko 21.000 eurokoa izan da. Orain, udal langile izatera pasatzen direnean, aurrekontuan ere aldaketa emango dela aurreikusten da.

Haurrei zuzentzen zaien eskaintzaren artean, udako udaleku irekiak daude. Aurrez esan bezala, Euskara eta Hezkuntza eta Kultura sailek antolatzen dituzte uztaileko hilabeteen zehar. 3-11 urte bitartekoei eskaintzen zaizkie.

Ludoteka ez da Zumaiako udalak gazteriaren inguruan jarri duen zerbitzu bakarra, 1998an, Kultura teknikariaren eta Ongizatearen ardurapean, Gaztetxola proiektua jarri zen martxan. Kale Heziketako programa zen hau. Hasieratik Ostargi enpresak kudeatutako zerbitzua izan da. Poligonoko lokaletan kokatu zen proiektua eta bertan, gazteek espazioaren jabe egin zirela aipatzen da. Arazoak arazo, birkokapen bat egon zen eta kale heziketa proiektua bezala sortu zena, gaztelekua izatera pasa zen. Beraz, kale heziketa proiektua desagertu egin zen.

2006ean Ostargi enpresako langileak, kale heziketaren beharra zegoela ikusirik, kalera irteteko saiakerarekin hasi ziren, bertan zeuden nerabeekin lan egiteko. Garai hartan, Alondiga eraikuntzan kokatzen zuen udalak zerbitzua, aurrez erabilitako espazioa haurtzaindegia izatera pasa baitzen.



2008an dagoeneko enpresan lantzen ari ziren planteamenduan oinarrituta, zerbitzuaren pleguak argitaratzen dira. Gaztegune deituriko programa hau, izaera komunitarioa duen baliabide sozio-hezitzaile gisa aurkezten da, nerabe eta gazteentzat. Ostargiri egokitzen zaio kudeaketa. Bertan bi proiektu ezberdin baina osagarri aurrera eramatea planteatzen da:

- 1.-Gaztegunearen lokalaren kudeaketa
- 2.-Kale-heziketako esku-hartze sozio-hezitzailea

Proiektua, Kultura, Euskara eta Hezkuntza eta Ongizateak koordinatua izatea proposatzen da. Horretarako ikasturtean zehar hiru bilera planifikatuak daude, Gazteguneko hezitzaileak, 3 sailei dagokien teknikariak eta bi zinegotziek parte-hartzen dutelarik. Baina zuzeneko ardura politikoa, Kultura, Turismo eta Merkataritza zinegotziarena da eta ardura teknikoa, topalekuari (Gaztetxola deitua) eta honen programaketari dagokiona Kultura Teknikariarena da eta esku-hartze sozio-hezitzailea Gizarte Langileari dagokio.

Hartzaileen adina 12tik 30era artekoa da, baina errealitatean, oraingoz 18 artekoen eskaintza bakarrik landu da. Aurrekontua 72.800 eurokoa da urte naturalerako eta 6.000 eurokoa bestelako gastuetarako (ekintzak...garatzeko). Kantauriko instalazio berrietan kokatua dago Gaztegunea. Bere helburuak hiru mailetan banatuak agertzen dira: (2008ko pleguetatik jasoak)

“OBJETIVOS COMUNES:

- Que los jóvenes y adolescentes que participan en el programa puedan desarrollar competencias, conocimientos, actitudes e intereses para el desempeño de diversos roles y funciones sociales, desde un concepto de ciudadanía activa.
- Acompañar el proceso de desarrollo de los/as jóvenes en la construcción de proyectos personales positivos de vida.
- Promover el uso y la normalización del uso del euskara dentro de las actividades cotidianas, de forma natural, para que interioricen dicho uso a modo de medio de expresión, tanto como para comunicarse como para relacionarse.
- Facilitar en los/as jóvenes un espacio de escucha que permita la toma de conciencia de sí mismos, de las circunstancias en las que viven y han vivido, de tal forma que puedan desarrollar una percepción positiva hacia su futuro y confianza en su capacidad de superar obstáculos y dificultades.

- OBJETIVOS DEL RECURSO “GAZTEGUNE”: (GAZTETXOLA)

- Que los jóvenes y adolescentes tengan espacios para jugar, para relacionarse y para desarrollar sus iniciativas y participar en las que se les ofrezcan.
- Posibilitar espacios adaptados y normalizadores en los que desarrollar hábitos para la salud y una educación en valores para el respeto, la solidaridad, la no competitividad, la cooperación. Espacios que tiendan a la acción positiva, a la educación conjunta, a la integración, a la participación, a la autogestión, comprometidos con la comunidad de Zumaia.
- Promover la implicación en las actividades que se desarrollen en la localidad, promocionando la participación activa de los y las jóvenes (actividades culturales locales, fiestas populares, fiestas para jóvenes...)
- Posibilitar la creación de redes juveniles

- OBJETIVOS DEL PROGRAMA DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVO:

- Detectar situaciones de menores en situación de riesgo de desprotección social y/o familiar y notificarlas a la responsable de Servicios Sociales.



- Concretar propuestas de trabajo individuales y/o grupales en el marco de una intervención educativa y desde una perspectiva de ayuda mutua en la que el menor o joven sea sujeto partícipe de su propio proceso.
- Promover el establecimiento de relaciones positivas entre los/as menores, sus familias y la escuela.”

Gaztegunek egun dituen erabiltzaileak Zumaiako bi ikastetxeetako nerabeak dira, batik bat 13-15 urte bitartekoak. Bertan bi hezitzaile daude lanaldi erdira lanean eta koordinatzaile funtzioak dituen hezitzaileak lanaldi osoa du. Adinaren arabera ordutegi banatua dute: 16:30-18:30 12-15 urtekoak eta 18:30etatik 20:30etara 15-18 bitartekoak. Zerbitzua astelehenetik ostiralera eta larunbat goizetan eskaintzen da.

Gazteei begira, Kultura teknikariak, 17.000 euroko aurrekontua du, beraiei begirako ekintzak abian jartzeko. Horretarako gazteen eskaerak jasotzen dira, eta oraingoz gehien bat, inguruko herrietara festetara joateko autobus zerbitzua jartzeko erabiltzen da.

Kultura sailetik, gazteek aurkeztutako zenbait proiektu babesten dira, baina orokorrean kulturarekin harremana duten eskaerak izan ohi dira. Gainera musika arloan, entsegu lokalak dituzte eta maketak grabatzeko diru-laguntza deialdia egiten du udalak urtero.

Parte-hartzeari begira, udalak kaleetan jarri dituen gutunontziez gain, kultur foro irekia antolatzen hasi da 2008ko abendutik. Bertara 18 urtetik gorako edozein herritar dago gonbidatua. Ez dute arrakasta handirik izan ez helduen artean, ez eta gazteen artean ere. Ez dago Sustapenaren inguruan partaidetzarako foro edo bestelako biderik. Gazteguneko partaideek hezitzaileen bidez euren ekimenak zinegotziari azaltzen dizkiete, baina hauek oso egitasmo konkretuak izan ohi dira. (adibidez motoen zirkuitua).

Ildo beretik, 2007an Batzorde Informatzaile berri bat osatu zen udalean: Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gazteria. Egundin berdintasunaren inguruko diagnosis aurkeztua dago udalean eta berdintasun plan bat eratzekotan dira. Honetaz gain, partaidetza lantzeko asmoa dago, 2008an aurrekontu parte-hartzaileak egin ziren eta bide berean parte-hartzea jorratzen jarraitu nahi da.

#### 4. LAN PROPOSAMENA

Haur, nerabe eta gazteen joerak bai orokorrean bai Zumaiako errealitatean oinarrituta, adin tarte hauen beharrak eta eskaerak, eta udalak horri aurre egiteko dituen baliabideak aztertu ostean, haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzuteko planteatzen dugun esku-hartze proposamena da jarraian azaltzen duguna. Epe ertain-luzean garatu beharrekoa da, hau da, datorren hiru urteetan zehar. Helburu orokorrak abiapuntu harturik, urtero-urtero kudeaketa plan bat diseinatuko da, epe horretan zehar garatu beharreko ekintzak eta epe zehatzak bertan jasoz.

Ondorio gisa, lehen atzeman den beharra Gazteria Teknikari baten beharra da. Ondoren proposatuko den lanketa guztia modu errazago, efizienteago eta koordinatuago batean gauzatu daiteke, Gazteria saila eratu nahi ez bada ere, Sustapen Sistema osoki garatuko duen teknikari bat izan ezker udalean. Kasu honetan, diagnostikoa egin aurretik teknikari hau udalean kontratatzearen zailtasunak adierazi zaizkigu. Jakinaren gainean egon da ere, komenigarritzat jo dugu txostenean, Zumaiako udalean Gazteria Teknikari baten beharra dagoela jasotzea.

Haurren zerbitzuarekiko jaso dugun ondorioa, Zumaiako haurrak eskaintza osatuena eta zerbitzu garatuena dutenak direla da. Ibilbide luzeko zerbitzua da Zumaiako



ludotekarena eta honek herrian finkatutako zerbitzu bat izatera eraman du. Hobetzeko arloak atzeman dira, adin tarte bakoitzari egiten zaion eskaintza, haurren parte-hartzea ludotekako programazioan..., gurasoekin harremana eta beraiekin egin daitekeen lanketa... Hau dena kontuan izanik, momentu egokia da udal planteamendua jasoko duen ludoteka proiektua lantzeko.

Nerabeei eskainitako zerbitzuaren bilakaerak eta egun, beraren inguruan jaso diren iritzi ezberdinek, oraindik zerbitzuaren izaerarekin asmatu ez dela adierazten digu. Jasandako aldaketak eta proiektu ezberdinen bateraketak, zerbitzuaren xedea difuminatzera darama, eta beraz herritarrek eta batik bat nerabeek eta hauen gurasoek zerbitzua zertarako den argi ez jakitera. Honen aurrean, lehentasunezko zat jotzen da zerbitzuaren inguruko balorazio bat egitea, eskaintzen dena, nerabeen beharrak eta nahiak erantzuteko egokia den ikusiz.

Gazteei dagokienean, ez dago argi zein zerbitzu dituzten eta nora jo dezaketen, hau da erreferente falta nabari da. Beraien dinamikak sustatzeko beharra jaso da. Lehentasunezko zat jotzen da gazteen behar eta nahiak euren ahotik entzutea, hau da adierazpen bideak ezartzea eta behar hauek erantzuteko gazteengandik sortutako ekimenak bultzatzea. Partaidetzaren gaia jorratzea beraz, garrantzia bizikoa dela ondorioztatu da.

Azken honekin bateratuta, gazteen elkartegintzak behar duen babes eta bultzada ere landu beharreko gaia dela ondorioztatzen da. Alde batetik, herrian dauden elkarreak eta gazteek elkarrekin hauek erantzuteko papera hobeto ezagutzea. Bestetik elkartegintzaren alderdi hau indartzeko beharra azaleratu du diagnostikoak.

Amaitzeko aipatu, egun haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko zerbitzuen arteko koordinazioa falta dela. Teknikariaren arteko lan koordinatua eta plantemandu bateratu bat izateak zerbitzuak eskaini behar duten kontinuuma bermatzen du eta lana modu koherente eta antolatuta batean egitera garamatza. Beraz, lehentasunezkoa izango da udal teknikariaren arteko koordinazioa eta aldi berean zerbitzuen artekoa lantzea.

#### **4.1. Ikuspegia**

3 urte barru, Zumaiako Udalak, Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen Sustapen Sistemaren parte den heinean, honekin bat etorriko den lan egiteko esparru teoriko definitu bat eta egitura bat izango ditu. Alde batetik, haur, nerabe eta gazteekiko politikak definituta izango ditu. Gainera, beharrezko egitura egokitua izango du (aurrekontu, sailen arteko banaketa eta teknikariaren funtzioak eta ardurak argi definituak), eta baita gazteria arloan lan egiteko zerbitzu sarea bat ere. Azkenean, lan dinamika propioa eta iraunkor bat sortua izango du, gazteriaren arloan lan egitera begira.

#### **4.2. Xedea**

Udalak, Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen Sustapen Sistemaren parte eta toki administrazio publikoa den heinean, biztanleriaren behar eta premiei erantzun behar die. Hau horrela izanda, haur, nerabe eta gazteen behar eta premiei ere erantzun behar die, eta baita hauekin harreman zuzena duten eragileei ere (gurasoak, elkarreak eta abar). Honetaz gain, beraien heziketa eta emantzipazio prozesuak baldintza berdinetan erraztuko dituen baliabideak izango dituztela bermatu behar du. Gainera, haur, nerabe eta gazteen eskubide zibil, kultural eta gizartekoak ahalbidetuko dituen ekimenak sustatuko ditu, aniztasunaren ikuspuntutik, hauen artean parte-hartzea eta hiritartasun aktiboa. Horretarako bere gazteria politikak definitu beharko ditu



Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen Sustapen Sistemarekin bat etorritik, eta baliabide pertsonal, material eta espazialak izan. Hauen arteko harreman eta koordinazio esparruak sortu beharko ditu, beti ere etengabeko hobekuntzarako tresnekin lana eginez.

#### 4.3. Helburu orokorrak eta zehatzak

Esan bezala, hurrengo 3 urteei begira **helburu orokor eta zehatzak** definitzen dira ondoren. Urteko kudeaketa plana 3 urteko helburu zehatzetan oinarrituko da, hauek izango direlarik urte bakoitzeko planean lortu beharreko helburuak.

**Helburu orokorra:** Udal Gazteria gaietan gazteria politiken marko baten barruan lan egingo dela bermatu.

Helburu zehatzak:

Zumaiako Udala Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemara atxikitu.

Udal mailan eta herri mailan marko ideologikoa sozializatu.

Udalak haur, nerabe eta gazteei zuzenduko zaien eskaintza garatuko duen arloa definitu eta egituratu bat izatea ahalbidetu.

**Helburu orokorra:** Haurrekin, nerabeekin eta gazteekin harremana duten gaietan norabide eta irizpide komun batzuekin lan egitea sustatu, koordinazioa eta elkarlana landuz.

Helburu zehatzak:

Udal mailan Sustapen Sistemaren ardura duten langileen arteko komunikazio, koordinazio eta elkarlanerako bideak sortu.

Udal mailan Sustapen gaiarekin erlazioa duten udal langileen arteko komunikazio eta elkarlanerako bideak sortu.

Herri mailako gazteria eragile eta udal mailan Sustapen gaiekin lotura duten langileen arteko komunikazio, koordinazio eta elkarlanerako bideak sortu.

**Helburu orokorra:** Udalak Haurrei, Nerabeei eta Gazteei zuzentzen dizkien zerbitzuak definituriko marko ideologikoaren barruan kokatu.

Helburu zehatzak:

Gaur egun Euskara eta Hezkuntza sailak eskaintzen duen haurrentzako ludoteka zerbitzuaren izaera Gipuzkoako Sustapen Sistemaren haurrentzako definitzen diren zerbitzuetara egokitu.

Gaur egun Kultura sailak eskaintzen duen Gazteguneko zerbitzuaren izaera Gipuzkoako Sustapen Sistemaren nerabeentzako definitzen diren zerbitzuetara egokitu.



Sortzen diren zerbitzu berriak Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Sistemak definitzen dituen arabera definitu.

**Helburu orokorra:** Haurren, nerabeen eta gazteen parte hartze eta hiritartasun aktiboa bermatzeko ekimenak sustatu.

Helburu zehatzak:

Haurrei, nerabeei eta gazteei zuzenduriko zerbitzuetan hauen parte-hartzea sustatu.

Herriko haurren, nerabeen eta gazteen beharrak, proposamenak eta iritziak ezagutu eta hauen inplikazioa bilatzeko komunikazio espazioak egokitu eta berriak sortu.

**Helburu orokorra:** Haur, nerabe eta gazte guztien nortasunaren garapenerako, elkarbizitzarako ikaskuntza eta gizartean parte hartzeko aukera berdintasuna bermatu.

Helburu zehatzak:

Sustapen Sistemako eskaintza osoan zehar lerro moduan nortasunaren garapena eta elkarbizitzarako aukera berdintasuna sustatu, aniztasunaren ikuspuntu positibo batean oinarritua.

**Helburu orokorra:** Sustapen Sistemaren garapenean etengabeko hobekuntzarako sistema eta tresnak ezarri.

Helburu zehatzak:

Gipuzkoako lurralde historikoko gazteria teknikariekin ezagutzaren transmisio eta elkartrukean parte hartu.

Udal mailan Gipuzkoako lurralde historikoko gazteria arloaren ezagutzaren transmisioa bermatu.

Haur, nerabe eta gazteria arloan kudeaketa aurreratua sustatu; planifikazioa, difusioa eta ebaluazioa

#### **4.4. 2009-10 kudeaketa plana**

Esku-hartze proposamena aurkezteko eta onartzeko datak kontuan hartuta, 2010eko urtea ere hartuko duen esku hartze bat prestatzeko aukera hartu dugu aintzat.

Diagnostikotik ateratako ondorioen ildotik, hasteko, lehentasunezkoa da sustapen arloa zer den definitzea eta zenbat sailetan banatuko den jakitea, bakoitzaren ardurak eta funtzioak egoki definituz. Honela, udal teknikarien artean modu koordinatuan lan egiteko proposamena landuko da haurren gaiak lantzen dituen Euskara eta Hezkuntza teknikariarekin eta gazteria gaiak jorratzea egokitzen zaion Kultura teknikariekin alegia. Sustapen gaiak modu koordinatu eta koherentean garatzeko ezinbestekoa izango da hau. Honek, gurekin elkarlankidetzan hasi den erreferentea Euskara eta Hezkuntza teknikaria izateaz gain, Kultura teknikaria izatea ere badakar. Bi teknikariekin lan-





taldea sortu eta Bulego Teknikoko aholkulariarekin batera Sustapen Sistema jorratzen hastea da gure proposamena.

Horretaz gain, "Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gazteria" Batzordeko arduraduna edo etorkizunean bertako teknikari izango den pertsona lan taldean txertatuko da. Lan-talde honek izango duen planteamendua landuko da. Planteamendu honen barruan, teknikarien postu monografiak landuko dira, beti ere Sustapenari dagokionean, bakoitzaren egitekoak argi egon daitezten. Era berean, herri mailan ezagutzera eman beharko da esku hartze proposamena bera, garrantzitsua iruditzen baitzaigu, hasieratik herritarren inplikazioa bilatzea ahal den heinean eta bestetik diagnostikoan parte hartu dutenei ere egindako lana aurkezteko aprobetxatu daiteke.

Paraleloki, Gaztegunearen balorazio bat egitea proposatzen da. Udalaren hausnarketa honen ostean, balorazio horretan oinarriturik, aldaketarako proposamenak aztertuko dira. Hausnarketa egin ondoren, nerabeen eskaera eta beharrak zuzenean jasotzeko momentua izango da, beraiei eskainitako zerbitzua euren parte-hartzearekin eraldatua izan dadin.

Gazteek parte-hartzeko izan dituzten bideak aztertu eta bide berriak eraikitzea proposatzen da ondoren. Egun daudenak babestu eta sustatu eta honekin batera, gazteek herriko elkartegintzan duten protagonismoa ezagutu, aztertu eta hobetzeari begirako proposamenak landuko dira.

Aurrez esan bezala, ludoteka zerbitzua garatuena da, baina birplanteamendu bat egiteko unea denez, eta urriarako zerbitzu berritua martxan jarri nahi denez, lan ildo honekin hastea proposatzen da. Ludotekaren jarraipena egiteko sistema bat osatuko da eta beste zerbitzuekin koordinazioa nolakoa izango den zehaztuko da.

Ezin ahaztu, guzti hau ondo bideratzeko ere beharrezkoa dela kudeaketa gaitasun batzuk lantzen joatea Euskara eta Hezkuntza teknikariarekin eta Kultura teknikariarekin batera. Beraz, teknikari hauen formazioaz gain, ildo ezberdinen planifikazioa, ebaluaketa eta difusioa ere nola egin lantzen joango gara modu jarrai batean.

Dena den jarraian epe honetarako proposatzen diren helburu eta ekintzak azaltzen ditugu banan bana:

## 1. Udalaren Gazteria gaietan gazteria politiken marko baten barruan lana egitea bermatu.

### 1.1 Helburu zehatza: Udal mailan eta herri mailan marko ideologikoa konpartitu.

Ekintzak:

- 1.1.1. Aurkezpena diseinatu
- 1.1.2. Aurkezpena burutu

## 2. Martxan dauden zerbitzuak Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Sistemak definitzen dituen arabera birdefinitzea.

### 2.1. Helburu zehatza: Gaztegunerako zerbitzua baloratu.

Ekintzak:

- 2.1.1. Kultura teknikariarekin formazio lana burutu
- 2.1.2. Balorazioaren planifikazioa landu



- 2.1.3. Gazteguneko zerbitzuaren balorazio definitiboa burutu.
- 2.1.4. Birdefinizioa diseinatu.

## 2.2. Helburu zehatza: Ludoteka zerbitzuaren jarraipena landu.

Ekintzak:

- 2.2.1. Euskara eta Hezkuntzako teknikariarekin formazio jarraia landu.
- 2.2.2. Ludoteka zerbitzuaren jarraipena egiteko plantemendua landu.
- 2.2.3. Landutako plantemendua martxan jarri eta jarraipena egin.

## 3. Hurrekin, nerabeekin eta gazteekin harremana duten gaietan norabide eta irizpide komun batzuekin lan egitea sustatu, koordinazioa eta elkarlana landuz.

### 3.1. Helburu zehatza: Udal mailan Sustapen Sistemaren ardura duten langileen arteko komunikazio, koordinazio eta elkarlanerako bideak sortu.

Ekintzak:

- 3.1.1. Sustapen gaietako mahai teknikoak sortzeko planteamendua landu eta adostu.
- 3.1.2. "Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gazteria" Batzordeko arduraduna edo etorkizuneko teknikaria lan taldean txertatu.
- 3.1.3. Adostutako martxan jarri.

## 4. Herriko haurren, nerabeen eta gazteen beharrak, proposamenak eta iritziak ezagutu eta hauen inplikazioa bilatzeko komunikazio espazioak sortu

### 4.1. Helburu zehatza: Zumaiako gazteen parte-hartzea bideak definitu eta martxan jarri.

Ekintzak:

- 4.1.1. "Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gazteria" Batzordeko arduraduna edo etorkizuneko teknikariarekin formazio lana burutu.
- 4.1.2. Orain arteko esperientziak jaso eta Zumaiako elkartegintzan gazteen presentzia nolakoa den aztertu.
- 4.1.3. Gazteen parte-hartze esperientziak ezagutu.
- 4.1.4. Zumaiian martxan jarriko den/diren parte-hartze bideak definitu.
- 4.1.5. Diseinatutakoa martxan jarri.

## 5. Aukera berdintasuna, elkarbizitza eta euskal kultura eta nortasuna bereganatzea sustatu, ezberdintasunaren baloraziotik abiatuta.

### 5.1. Helburu zehatza: Zerbitzuetako ekintzetatik gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu.



Ekintzak:

5.1.1. Ekintza oro planifikatzen denean genero berdintasuna nola landuko den zehaztu.

5.2. Helburu zehatza: Euskararen erabilera eta euskal nortasun eta kultura eraikitzeke esperientziak sustatzea.

Ekintzak:

5.2.1. Hizkuntza normalizaziora zuzenduriko ekintzak definitu eskaintza orotan.

5.3. Helburu zehatza: Zerbitzuetan jatorri eta egoera ezberdinak dituzten haur, nerabe eta gazteen irisgarritasuna bermatu.

Ekintzak:

5.3.1. Jatorri eta egoera ezberdinak dituzten haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak kontuan izan gazteria gaietan garatzen diren ekintzetan.

6. Gipuzkoako lurralde historikoko teknikariek ezagutzaren transmisioa eta elkartrukean parte hartu.

6.1 Helburu zehatza: Gipuzkoako lurralde historikoan ezagutzaren transmisio eta elkartrukeko dauden bideak ezagutu eta bertan parte hartu

Ekintzak:

6.1.1. Gipuzkoako lurralde historikoko gazteria teknikarien sarean parte hartu.

6.1.2. Gaztesare aplikazio informatikoa ezagutu eta elikatu.

6.2. Helburu zehatza: Sustapen Sisteman kudeaketa aurreratua sustatu: planifikazioa, difusioa eta ebaluazioa.

Ekintzak:

6.2.1. Planifikazio tresnak eskaini eta hauen erabilera sustatu.

6.3. Helburu zehatza: Haurren, nerabeen eta gazteen artean gazteria arloaren ezagutza handitzeko komunikazioa landu.

Ekintzak:

6.3.1. Haurrentzat, nerabeentzat eta gazteentzat egiten den eskaintzaren difusioa eta komunikazio ekintzak egin.

6.4. Helburu zehatza: Martxan dauden zerbitzuen gaineko etengabeko hobekuntzan lana egin.

Ekintzak:

6.4.1. Sustapen Sistematik egindako eskaintza eta ekintzen ebaluazioa egin.

